



Xabier MUTUBERRIA  
Urteko enpresaria  
→ 3

2010eko apirilaren 15a | XXX. urtea | 516. zenbakia

**BORTZIRIAK → 11**

Hiru udalek paro eguna  
deitu dute apirilaren 22rako

**LESAKA → 13**

Gazte Eguna  
apirilaren 17an

**DONAMARIA → 20**

Igerilekua egiteko  
lanak hasi dira

**LEITZA → 24**

Herri krosa apirilaren  
24an, Aurrerak antolatuta

**BAIGORRI → 31**

Nafarroaren Eguna  
apirilaren 25ean

## Baserritarrak bitartekaririk gabeko salmentaren alde



ERREPORTAJEA → 4-5



## Munduko bizikleta gurpilik arinenak Beran egiten dira

Michel Debien sortez frantziarra baina azken bi urteotan Beran tailerra zabaldu duenak, eskuz 900 gramoko gurpil pareta egiten duela kontatu digu, munduko arinenak, bere erranetan.

KIROLIZKETA → 36



**ORDOKI**  
altzariak  
Estilo ugariko mobleak

ERAKUSKETA: Bittiria 26 • SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 • Tel. 948 63 77 80 • LESAKA



**ANTZERKI  
EMANALDIA  
BERAN**

**Aitarekin bidaian, Hika Teatroa**

Eguna: apirilaren 17a, larunbata • Ordua: 22:00 • Lekua: Berako Kultur Etxea  
Sarrerak: 8€ (egun berean 21:00etatik aitzinera salgai)

Antolatzaileak:    
Laguntzaileak:   

Sortez zubietarra da Xabier Mutuberría enpresaria, baina txikitatik ibili da etxetik kanpo. Ingeniaritza ikasketak akitutakoan, Fagor taldean hasi zen lanean, eta azken 24

urteotan 4.000 langile dituen Orona igogailuen enpresan dabil. Gainera, 1999tik zuzendari nagusia da. Aurtun, berriaz, Gipuzkoako Bazkondeak *Urteko enpresaria* saria eman

dio. Herritik kanpo bizi arren, herriarekin ez duela harremanik galdu aitortu digu: «Zubietako betiko lagunak eta herria nire bihotzean eramaten ditut munduan zehar».

Xabier MUTUBERRIA | Zubietako enpresaria

# «Krisitik atera garela ez da benetan nabarituriko 2014a baino lehen»

G. PIKABEA | ZUBIETA

**Zer erran nahi du Gipuzkoako Urteko enpresaria saria hartzeak?**

Gure kooperatiba taldearen goiburua esaten duen bezala, *elkarrekin urrunago*. Sari hau Oronako langile guztienarena da. **Ardura haundia sortzen al dizu zuzendari nagusi izateak?**

Talderik gabe ez dago zuzendaritzarik. Orona taldeko bazkideen eta langile guztien elkartasuna eta konpromisoa dira garrantzitsuenak eta giro horretan zuzendaritzaren lana asko errazten da.

**Krisi garaian izanik, zein balantze egingen zenuke Oronaren inguruan?**

Momentu honetan Orona taldea oso ondo doa eta etxeko lanak aurretik eginda zeuzkan krisia gainditzeko. Horrek etorkizunari begirada sendoa eta argitsua ekartzen dio. Erilaz ere gure etekinak oso onak izan ziren, historian atera ditugun onenak.

**Non dago Oronaren merkata?**

Gaur egun, mundu osoan aritzeko gaitasuna beharrezkoa da eta Orona aspalditik dabil bide horretatik. Momentu honetan 92 herrialdetan daukagu salmentak eta herrialde askotan merkaturaren lidergoa daukagu. Eguneroko munduan 100 milioi pertsona mugitzen dira gure igogailu eta mugikortasun sistematan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Xabier Mutuberría zubietarra Orona enpresako zuzendari nagusia da 1999tik.

**Proiektu berria egiteko du Oronak Hernaniko Galarretan. Azaldu...**

Guztiaren gainera, berrikuntzak garapenaren ardatz nagusia izaten jarraitzen du. 2009an berrikuntzaren alde egin dugun erronkaren adierazgarri nagusia eta oso garrantzitsua Donostia Parke Teknologikoa Galarretara zabaltzea izan da. Egitasmo honekin zientzia eta akademiaren eremuak berrikuntzarekin elkar eragitea lortu nahi dugu, igogailuen sailak merkatuak eskatzen duen teknologia maila bertan bertan. 108.000 metro koadroko azalera eta 160

**KRISIA ESKUALDEAN**  
«Ezagutzen ditudan industriak multinazionalen eskuetara pasatu dira eta hauen erabakiguneez ez dute inongo mugarik produkzio azpiegiturak lekuz aldatzeko. Gaur egungo lehia handiarekin, langilegoaren parte-hartzea, elkartasuna eta inguruarekin solidaritatea bezalako balioak etorkizuneko garaipen ardatzak bilakatu dira»

milioi euroko inbertsioarekin, proiektu honen birtartez, goi mailako mila lanpostu sortuko dira, eta enpresa, zientzia eta akademia eremuak leku berean kokatzea lortu da. **Sakanaren ondotik, Nafarroan gure eskualdea da langabeziak gogorren jo duena...**

Lurraldeko enpresa sarea ez dut ondo ezagutzen, baina krisia orokorra da eta sektorea anitzekoa izanda, gogor jotzen ariko denaren susmoa daukat. Krisiaz hitz egiteari utzi behar diogu, konponketei buruz mintzatzeko ordua da. Ekonomia aro desberdin ba-

tera egokitu behar dugu eta etorkizunari begira goi mailako lanbidea sortzea beharrezkoa da. Orduko kostuan oinarritutako lehiakortasuna erabili izan da aurreko aro ekonomikoan, baina etorkizuneari ez da erabilgarria izango. Ezagutzen ditudan industriak multinazionalen eskuetara pasatu dira eta hauen erabakiguneez ez dute inongo mugarik produkzio azpiegiturak lekuz aldatzeko. Gaur egungo lehia handiarekin, langilegoaren parte-hartzea, elkartasuna eta inguruarekin solidaritatea bezalako balioak etorkizuneko garaipen ardatzak bilakatu dira. Nafarroako kooperatibaren munduan milaka lanbide daude eta etorkizun handikoa da.

**Nolakoak izanen dira krisia akitu ondorengo urteak?**

Krisi honek aurreko guztiak bezala bereizgarriak ditu. Oraingoan espekulazioa eta finantza merkaturaren gardentasun eza izan dira sortutako burbuilaren arrazoiak. Krisitik atera garela ez da benetan nabarituriko 2014a baino lehen eta bizi izan dugun ekimen maila altuak ez dira berriro izango. Etorkizuneari lanpostu merkaturatuaren jaitsiera nabarituriko da. Laburbilduz, berreskuratzea mantsoa izango da eta ekimen eta enplegu mailak murriztuagoak izango dira.



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Beñat Lekuona Sarako baratzezainak astero etxeko produktu freskoekin egindako otarrea ematen die hainbat familiari Saran eta Donibane Lohizunen. Kontsumo Taldeetan antolatutako erosleak dira.

**BASERRIA** → BARATZETIK ETXECO MAHAIRA ZUZENEAN

## Bitartekaririk gabe saltzen duten baserritarrak gero eta gehiago dira

Baserritik bizi direnentzat, aitzinera egiteko bide bat zuzenean bezeroari saltzea izaten ari da

Garai batean baserritarrak zuzenean saltzen zizkion etxeko produktuak bezeroari, azokan edo etxean. Denborarekin, ordea, bitartekariak sartu ziren tartean eta azken urteotan, baserritarren kalterako, saltoki

haundietara joateko ohitura handia dago. Halere, bada oraindik produktu freskoa nahiago duenik ere eta horretarako dendara joan ordez, zuzenean nekazari edota abeltzainengana jotzen duenik ere.

### G. PIKABEA

Gero eta baserritar gehiago dira aurrez-aurreko salmentarekin ari direnak, etxeko produktuak bitartekaririk gabe saltzen dabiltzanak, alegia. Eta baserritik bizi direnak gero eta guttiago diren arren, merkatuaren beharretara moldatu eta base-

rriko lanetik bizi direnak ere badira: Beñat Lekuona, Aitor Azkarate eta Xabier Sestorain dira horietako batzuk.

### SARAKO BARATZETA

Sortzez Biriaturkoa baina Saran bizi den Beñat Lekuona baratzean egiten duenetik bizi da. Sa-

ran dituen 15 hektarea eta Donibane Lohizunen dituen bi hektareatik ateratzen dituen baratzeak bi heriotan saltzen ditu. Duela 15 urte hasi zen Donibane Lohizuneko merkatuan saltzen, anaiak hasitako bideari erreleboa hartutakoan. Dena den, etxean ttikita-

tik baratzean ibilia da. Kontatu digunez, urteotan bezeroak aldatu egin zaizkio: «lehenago adineko jendea bakarrik etortzen zen eta orain bikoite gazteak ere hasi dira, gehienbat lehenbiziko haurra izatean». Merkatu-ara doana kalitate bila doala ziur dago: «badakite nik ez dudala tratamendu kimikorik ematen eta horretarako heldu dira».

Merkatuko salmenta ongi zihoan arren, duela bi urte Kontsumo Taldeekin hasi zen lanean. Nekazal produktu batzuk zuzenean baserritarrari erosteko osatzen diren taldeak dira Kontsumo Taldeak eta Ipar Euskal Herrian hedapen handia dute. AMAP edo landa eremu-ko nekazaritza mantentzearen aldeko elkarteetan antolatzen dira. Lekuonak Donibane Lohizuneko AMAPen deia jaso zuen 2008an, barazki freskoekin egindako otarreak saltzeko prest ote zegoen galdetuz. Ehun interesatu baino gehiago zeuden, baina baratzezai-

na 15ekin hasi zen, eta orain 26 familia ditu. Eta Saran ere berdin hasi da. «Etxerat etorri nahi zuten erostera eta taldean antolatzeko erran nien». 10-12 familiarekin hasi eta gaur egun 15 ditu Saran. «Gehiagok ere nahi lukete, baina ez dut aski».

Kontsumo Taldeko kideek sorpresan jasotzen dute otarrea. Sasoiko produktuekin hornitzen du, baina bezeroek ez dute jakiten zer izanen duten. Astearte arratsaldero, Sarako plazan egiten dute hitzordua eta bezeroak orduan josten zaizkio otarrearen bila. Ordaindu, berriz, hilabete hastapean egiten diote.

Badu, ordea, kezka haundiagoa eragiten dion bertzelako kontua: Abiadura Haundiko Treinbidea. Proiektuan Lekuonaren Donibane Lohizuneko baratzea erditik zazitzea aurreikusia dago. Lehendik treinbidea izanda eta erabili gabe egonda, berria egitea «zozokeria handia» dela iruditzen zaio, eta gainera, «di-

Beñat LEKUONA, Sarako baratzezaina



«Jendea izitua dago alde guzietan gaitzak agertzen ari direlako eta ongi jan nahi dute»

«Sara, Donibane Lohizune, Azkaine, Senpere eta Ziburukoak ditut bezero gehienak eta udan turista franko ere etorzen dira. Gan den udan beldur nintzen zer pasako ote zen krisiarekin, baina sekula baino hobeki saldu nuen. Krisia bada, baina bertze aldetik, jendea izitua dago alde guzietan gaitzak agertzen ari direlako eta ongi jan nahi dute. Jateko gauza da jendeak azkenik kenduko duena. Krisia baino arazo haundiagoa dut nik orain. Treinbide laisterraren proiektuan Donibane Lohizuneko nire baratzea erditik zatitua ageri baita eta horren kontra borrokan ari naiz».


Aitor AZKARATE, Anizko Jauregia baserria



«Kopuruaren aldeko apustua egitea baino hobea da kalitatearen alde egitea»

«Abeltzaintzan beti izan da krisia, ez da gaurko afera eta etorkizuna ere nahiko beltz dago. Baina etxeko produktuak oraindik baloratzen dituz jendeak eta prest dago ordaintzeko. Orain esne ekologikoa ekoizten hasiko gara eta horretarako Kontsumo Taldeei galdetu diegu. Salmenta zuzena egiten genuke eta bezeroarekin harreman zuzena eduki eta hori guri interesatu egiten zaigu. Zenbat eta bitartekari gutiago izan, orduan eta hobeki. Bide berriak landu beharra dago eta kalitateko produktuak eskaini nahi ditugu. Kopuruaren aldeko apustua egitea baino hobea da kalitatearen alde egitea».

Xabier SESTORAIN, Leitzako Gorritz baserria



«Eroslea produktu merkearen bila dabil, eta hori industrialki egiten den ustiategietan lortzen da»

«Jendearen erosteko ohiturak aldatu egin dira. Lehenago balio gehiago ematen zitzaion janariari eta orain gero eta gutxiago ematen zaio, batez ere, hirigunean. Sistemak berak ere saltoki haundietara joateko kontsumo eredua bultzatzen du. Gainera, garai batean garrantzitsuak ez ziren gauzak orain hala dira, adibidez, kanpora joatea. Lehenago gutxi ateratzen zen kanpora eta jendeak gutxi gastatzen zuen horretan. Orain, ordea, jendeak beste gauza batzuetan gehiago gastatzen du eta gutxiago janarian. Eroslea produktu merkearen bila dabil, eta produktu merkea industrialki lan egiten duten ustiategietan lortzen da».

ru aldetik nire etxerako gauzarik inportanteena han da. Ez dut Sararat ekartzen ahal, bezeroak gehienbat han baitituz». Itxaropen bakarra «treinbidea ez egitea» dela aipatu digu, eta helburu horrekin, politiko eta hedabideengana jo du.

#### ANIZKO JAUREGIA

Anizko Jauregia baserrikoek zuzenean baina modu berezian saltzen dute etxeko behien esnea: esne fresko pasteurizatua ematen duten makinaren bidez. Elizondon paratu zuten lehenbizikoa, eta horrekin «kontent» daudela erran digu Aitor Azkaratek. «Inguruko jendeak hemengo produktua baloratzen du», dio. Asteburuetan eta udan, turista gehiago dabilenean, gehiago sal-

tzen badute ere, batzertzen badute, egunean 80-90 litro saltzen dituzte makinatik. Aldiz, Atarrabian paratu zutena kendu behar izan dute, ez zuelako funtzionatu eta «ikusien genuelako jendeak ez zuela produktua baloratzen». Makinaz gain, etxean duten dendan ere saltzen dute esnea, baita gazta eta esnekiak ere. Azken hauek inguruko dendatik eta Interneten ere ([www.jauregia.net](http://www.jauregia.net)) aurki daitezke. Baina Internetek «arrakasta ttikia» duela aipatu digu

#### AHT-A BARATZE ERDITIK

Donibane Lohizunen Lekuonak duen baratzea erditik zatitzea aurreikusia dago Abiadura Haundiko Treinbidearen proiektuan.

Azkaratek. Hauxe arrazoia: «salmenten %80-90 eskualdean egiten dugu, eta etxeko eta inguruko dendetan badaude gure produktuak».

#### LEITZAKO GORRITZ BASERRIA

Nekazaritza ikasketak bukatu, urtebete eraikitzen lan egin, eta 19-20 urte zituela hasi zen Xabier Sestorain Leitzako Gorritz baserriko semea etxean lanean, eta hortik bizi da. Etxean dituzten 300 bat ardiren esnearekin egindako gaztak sal-

#### SALMENTA BEREZIA

Esne fresko pasteurizatua ematen duten makina dute Jauregia gasnategikoek Elizondon eta egunean 80-90 litro saltzen dituzte.

tzen dituzte, eta horrez gain, axuriak ere bai harakinari, eta noizean behin etxera etortzen denari. Gaztak, berriz, Leitzan astero egiten den azokan eta etxean saltzen dituzte gehienak, eta «ale batzuk dendan», dio Sestorainek. Bezeroak ere gehienbat herrian dituzte, nahiz eta Iruña eta Gipuzkoa aldetik ere bakarren bat etorri, eta turistak ere bai opor garaian. Urtean 3.500 kilo gazta inguru egiten dituzte, hau da, 25.000 litro esne. Krisiaz galdetuta, «azken

#### 3.500 KILO ESNE

Urtean 3.500 kilo ardigazta egiten dituzte Gorritz baserrian -25.000 litro esne- eta gehienak Leitzan saltzen dituzte.

urtean salmentan ez dugu arazorik izan», erantzun digu, baina gazta guztiak «etxeko esnearekin egiten ditugulako». Esnearen «gehiegizko produkzioak» kezkatzen du leitzarra: «horrek prezioaren jaitsiera dakar zuzenean». Bere irudiko, «ustiategi haundi batzuk esne asko ateratzen ari dira eta epe ertainera, ondorioak ekarriko ditu, eta zoritxarrez, prezioaren jaitsiera izan da». Alde horretatik, «zaila» ikusten du etorkizuna. Krisiarekin jendea «beldurtua» dagoela uste du eta horregatik, «jendea merkearen bila» dabilela. «Garrantzia eman behar genioke bertakoa mantendu eta gaur egungo baserriar kopurua eusteari. Bestela, baserriak ia inor ez da biziko».



**Nire txanda**  
Koro IRATZOKI

## Astopitoak

**E**z naiz historialaria, baina uste dut «astopito» espeziea historian zehar beti existitu izan dela. Bertze toki batzutan «astazakila» bezala ere ezagutzen da, eta zuetariko gehienek batenbat ezagutuko duzue. Gisa aunitzetakoak dire, baina gazteak direnean gehiago nabarmentzen dire, eta edanak edo «kolokatuak» direnean hobe beki erakusten dituzte beren pitokeriak. Nire aitak dio bere denboretan ugariagoa zela espezie hau, batez ere arren artean. Bere iduriz, gaur egun ez da hainbertze astopitorik, baina ni ez naiz hain segur: edozein besta edo gaupasen ondotik agertzen diren arbol moztuek, edo kontenedore irauliek, edo erreka zikinduek, edo farola hautsiek... argi erakusten dute espezie hau oino indartsu dabilela. Zientzialarien lan bat espezieak babeste da, bainan «astopito» espezie hunekin salbuespena egin beharko zuten. Ez dut uste nihor penatuko denik astopitoak-astazakilak desagertzen badire.

**Edanak edo «kolokatuak» direnean hobe erakusten dituzte beren pitokeriak**

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Zuzenean baserritik etxera

**U**rteak daramazki baserriak krisian. Urtetan hainbat esplotazio desagertu dira. Urteak daramazkite beraiek prezio apalean saldu-tako esneki, haragi edo barazkiak, halako hiru, lau edo hamar ordaintzen supermerkatuetan. Baserritar batzuk kontsumitzaileengana zuzenean jotzea erabaki dute, garai batean bezalatsu. Erosleek eskutik eskura kalitateko produktua jasotzen dute.

## Nabarmentzekoak



**Xabier ZABALO**  
Leitzako alkatea

Arano, Areso, Goizueta, Leitza, Larraun eta Lekunberriko hondakinen kudeaketa egiteko sortu berri den Mendialdea Mankomunitateko presidente izanen da Leitzako alkatea.



**Auxtin ZAMORA**  
Senpereko idazlea

Oraingoan olerkigintza alde batera utzi eta Sara etxez-etxe liburua aurkeztu du. Etxe eta baserri izenak paperean ezartzeaz gain, bere kokapen geografikoa ere zehaztu du.



**Joxe Mari MENDIZABAL**  
Aizkolariaren heriotza

Joxe Mari Olasagastiren kontrako aizkora apustuan gaizkitu eta ondotik hil zen 63 urteko aizkolari handia. Leitzan bizitu zen hainbat urtez eta bertan egin zioten hileta elizkizun hunkigarria.

**Atzera begira → 1997.04.10 / TTIPI-TTAPA 203. zbk**



### Ostrukak Oronozko Etxotoan

1997ko apirillean Oronozko Etxotoa baserrira hurbildu zen TTIPI-TTAPA, Kiriko Oteiza eta bere familiak 36 ostruka hazten zituztelako. Afrikatik, Namibiatik ekarritako azienda berria zen gure inguruan, baina dena probexten dela aipatu zigun Kirikok: «lumak zamarrak egiteko, larruak ere sosa handia balio du, boltsak egiteko-eta erabiltzen da; eta haragia ere ongi saltzen da». Hori bai, behin hazitakoan ezin edozein hiltegiara eraman, «ostrukekin zer egin jakin behar dute han, nola hil eta nola apaindu behar diren, bertenez balorea galtzen dute». Kirikok, Donostiako hiltegi batera eramaten zituen bere ostrukak.



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemalleak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Aranbxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria...

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

### 2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....37€	Europa	.....55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....31€
Ipar Euskal Herria	.....55€	Amerika eta Australia	.....123€	Leitza	.....15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



## Kolaborazioak

### Amaren Eguna dela eta

Laura IGANTZI

**A**maren Eguna dela eta, gure amaren papera zein izan den gogoratu beharko genuke. Egia da haurrak mundura ekartzen ditugularik ez datozela inongo instrukzio liburuarekin. Ama izaten ez da inon ikasten, gure senaz baliatzen gara, gure amak ematen dizkigun azalpenak ahaztu gabe!

Gure belaunaldiko emakumeak, etxez kanpoko lan munduan sartuta gaudenak, ez daukagu batere erraz bi munduak alderatzeko. Etxera iritsi orduko, eta lantokiko arazoak oraindik burutik kentzeke dauzkagunean, gure etxeko zurrunbilan sartu behar dugu. Egia da ez dela erraza, baina, gure aurreko belaunaldiek pasatu dutena errepasatzen badugu?

Hasteko, gerra ondoko garai latz haietan nahiko neke etxeko goseak estaltzeko. Familiak ere ez ziren nolana nahikoak: aitatxi-amatxi, ezkondu gabe gelditutako osabaren bat, senar emaztea eta 5, 6, 7...11 seme-alaba.

Familiaren zutabe sendoa, etxekoandrea. Orduan gainera, ez zeuden gaur egun ditugun aurreakuntzak: etxe-tresnak, oihalak txiki nahiz xaharrentzat, argia, ura...Eta familiak aurrera atera ziren. Orduko emakumeen hezkuntza, ezkontzean etxea ongi eramateko modukoak ziren bakarrik. Baina, beraien alabek, berriz, beraien amaren lana mirestuz, bertze bizi mota baten alde egin zuten. Ahal izan zutenak etxetik kanpo lanean hasi ziren, eta beraiek eduki ez zuten hezkuntza beraien seme-alabei eman zieten. Hori bai, etxeko ardura guztia beraiena izaten jarraitzen zuen, eta gehienetan seme-alabak izatean ere lana uzten zuten, familiaz arduratzeko.

Zer jasotzen dute ordainean? Bere alabak lanean jarraitu ahal izateko bilobak zaintzen dituzte, seme-alabei esku bat botatzeko beti prest. Baina beraiek laguntza behar dutenean, ez dute inor laguntzeko moduan aurkitzen. Lehen aipatu dugun bezala nahiko neke norberaren seme-alabak aurrera ateratzeko!

Ez genuke erreflexio bat egin behar? Nora goaz bizi-modu honekin? Estatu Batuetako modelora? Han familiaren kontzepturik ez dago. Baina, gure eskualdean? Euskal Herriko modeloa betidanik *matriarcado* deritzan modeloan sostengatu da. Hau da, ama izan da beti ardatza. Ez dute gure aurreko belaunaldikoak bertze tratamendu bat merezi? Uste dut erreflexio sakon bat egin beharra dagoela, eta datorren familihaustura hau nolabait ekidin behar dugula.

Amaren eguna ailetzear dagon honetan, muxu bat emanez, *Eskerrikasko ama, eredu bat zara* erran beharko genukela uste dut. Isilean, sekulako lana egin dute amek gauden egoeran egoteko, ekonomikoki ez dugu ezer behar, baina afektiboki? Badire gauzak diruaz erosi ez daitezkenak.

«Isilean sekulako lana egin dute amek gauden egoeran egoteko. Badira gauzak diruaz erosi ez daitezkenak»

### Euskarak aldeko botoak behar ditu

Bortzirietako Ezker Abertzalea

**A**ldizkari honen azken alean Aralarren artikulua irakurri genuen. Datu aunitz eman zituzten, baina ez zuten argi eta garbi idatzi urte batetik bertzera %35 murriztu dutela Mankomunitatearen aurrekontua, sarraski izugarria. Krisia izan omen da arrazoia. Beran antzeko neurriak hartu omen dituzte Udalaren arlo guztietan. Baina hori gezurra da, tamainako murrizketak kirola, kultura, bestak eta euskararen barririk gertatu baitira. Krisia betiko arloetan murrizketak eginez konpondu nahi ote dute?

Nafarroako bertze udal eta mankomunitate batzuk hagitzez diru gutxiago paratzen dutela diote. Baina nola erran dezake hori euskara lehentasunezko gaitzat omen duen alderdi batek?

Haro egon beharrean min egiten die, nonbait, Bortzirietan euskararen arloan egiten den inbertsioak. Benetan euskara lehentasunezkoa baldin badute, konparazioak egiten hastekotan, gehiago ematen duten udalekin alderatu beharko lukete eta ez ahalegin txikiagoa egiten dutenekin. Eta gainera datuak zuzen eta nahasteko biderik utzi gabe eman behar dira, Bortzirietako Mankomunitateak biztanleko 30 euro inbertitzen ZITUEN (hori da aurkeztu zen lehenengo plangintzaren aurrekontua), Aralarren botoari esker onartu duten aurrekontuekin 21 euro izanen DIRA.

Diru-laguntzak banatzeko zer lehenetsi duten ere aipatzen dute (euskaltegia, bertako komunikabideak eta bertso-eskola) baina zigortu dituztenak ez dituzte aipatzen, eta horietan ikastolekin zerikusia duten proiektuak bereziki nabarmentzen dira: Labiaga ikastola, Nafarroa Oinez eta Herri Urrats sosik gabe utzi dituzte. Plangintza kaltetuena suertatu dela erratea bertzerik gabe ere ez da nahiko. Lan-munduko ekimenak, Bai Euskarari akordioaren inguruko ekimenak eta euskara eta familia uztartzen dituen ekimenak larriki kalteak geratu direla erran behar da. Eta langileak mantentzearen alde agertu direla erratea ere ez da zuzena: onartu duten aurrekontuan teknikarien lana murriztu dute eta administrariaren lanpostua subentzio bat lortzera baldintzatu dute.

Nafarroako Gobernuaren politikari buruzko aipamentxoak ere egiten dute, eta bertze galdera bat datorkigu gogora: zer zilegitasun dute Aralarrek eta NaBaik Nafarroako Parlamentuan daudenean Gobernuak euskararen arloan egiten dituen murrizketen kontra agertzeko? Zein argumentu erabiltzen dute UPN-CDN-PSNren aitzinean? Izan ere, Bortzirietan bederen, murrizketen aldeko botoak EAJtik eta Aralartik atera dira, Gobernuak eman izan dituen argumentu berberak erabilia.

«Tamainako murrizketak kirola, kultura, bestak eta euskararen barririk gertatu dira. Krisia betiko arloetan murrizketak eginez konpondu nahi ote dute?»

## Irakurleak mintzo

Indarrak  
biltzeko  
batzarra

Patxiku IRISARRI (Etxalarko alkatea); Ainara MAIA (Arantzako alkatea) eta Josu IRATZOKI (Berako alkatea)

Legealdi hau hasi genuenetik gaur arteraino, gutun hau sinatzen dugun alkateak harremanetan egon gara gure eskualdearen inguruko gaiak aztertzeko helburuz. Gai aunitz izan baditugu ere hizpide, Bortzirietan jasaten ari garen egoera sozio-ekonomikoa izan da iraunkorki elkarlan bat burutzeraz eraman gaituena.

Hainbat ekitaldi eta mobilizazio antolatutako gaitugu eta bertze hainbatetan parte hartu: hiru alkateon ekimenez antolatutako manifestazioa *ez gaitezen engaina, sistema da balio ez duena* lelopean 500 lagun bildu zituena, ELA eta LABek antolatutako bilera eta mobilizazioetan, hautetsien artean erreka guztian buruturiko bileretan, ingurumenaren alde herri mugimenduak antolatutakoetan (Erdiz)...

Bortzirietako egoera sozio-ekonomiko larriaren antzinean erantzun jendetsu eta «bateratuak» emateko gai izan gara gure akats guztiekin. Kasu batzuetan ez nahikoak izan arren, azpimarratzekoa da egindako lanaren bitartez izandako lorpenak. Hala ere, egoera zailtzen ari den neurrian, eran-

tzuteko bitartekoak ere egokitu beharrean gaudete. Azken hilabeteotan eragile politiko, sozial eta sindikalen artean buruturiko bilerek eta go-goetek gure eskualdearen defentsan guztiak elkarrekin lan egitea gauzagarria den zerbait dela erakutsi digute, gauzagarria eta beharrezkoa. Alderdi zein norbanakoen interesak alboratu eta gure eskualde nahiz herritarren eskubideen bermea izan behar duen mugimendu indartsua antolatzea izan behar du orain helburua. Burutzen ari garen elkarlanaren bitartez, apirilean ekimen garrantzitsu bat antolatzeko oinarriak jartzen ari garen honetan, ekarpen berri eta xume bat egin nahi dugu. Apirilaren 14an Lesakako kasinon *indarrak biltzeko batzarra* antolatzea deliberatu dugu.

Batzar hau helburu bikoitza lortzeko asmotan antolatu nahi dugu. Batetik, arlo eta pentsakera ezberdinetako pertsonen hausnarketa bat burutzeko. Bertetik, Bortzirietan bizi dugun egoera larriak erantzun bateratuak behar dituelako eta batzar honek aurrerantzean antolatu beharreko ekimenak dinamizatzeko lan talde bat sortzeko beta eskaini dezakeelako.

Gure ekarpen berri hau aipatu norabidean dago kokatuta. Azken boladan hainbat adituen ahotik egunerokotasunean ezagunak egiten zaizkigun esaldiak aditzen ari gara: «inposatu



## Bota bertsoa

Joseba ZABALETA (Leitza) • Doinua: Hil da Cánovas

## Leitzako Musun baserriarekin elkartasuna

Otsaillaren hogeita-zortzian  
Musun baserria erre zela,  
Igande hartan berri harekin  
Leitzarrak esnatu giñela,  
Suhiltzaille eta bolondresek  
Eiñalak ein zituztela,  
Baserriaren lau paret behintzat  
Zutik gelditu zirela,  
Ta udalak erabaki zuen  
Lagundu ein behar dela.

Laguntzeko kirol jaialdi bat  
lortu zen antolatzea  
kirolarien parte hartzeaz,  
saio on bat eskaintzea  
herriak ongi erantzun zuela,  
noa ere aipatzea  
beraiek ere eskertu zuten  
beraiek laguntzea  
hirurehun urteko historiak  
merezi du jarraitzea.

nahi diguten morrontzaren aurrean, demokrazia irabaztea izanen da hurrengo urteetako borrokarik nagusiena, feudalismoaren garaietara itzultzeko arriskuan egonen baikara». Aipatu guztiagatik, deiberezi bat luzatu nahi dizuegu Apirilaren 14an *indarrak biltzeko batzarrean* parte hartzeko. Gure eskualde bizirik mantendu nahi dugulako, bildu gaituzen!

Nolakoak garen  
Iruritakoak!

Idoia **ESKUDERO MARTIN**  
[Iruritako Guraso Elkarte](#)

Nolakoak garen Iruritakoak! Aunitz eskatzen badakigu eta ez gara gutirekin konformatzen. Baina nor konformatzen da gutiagorekin bere seme-alaben ongizateaz ari denean? Ez Iruritakoek ezta munduko inortxok ere ez du

aski izaten bere seme-alabei ematerako orduan. Badaukagu gure eskola berria. Buila ederrara ateratu genuen hori lortzeko, eta berriz he-men gaude buila atez, bertzela ez digutela aditzen ematen iduri baitu. Eta nork ez gaitu aditzen 8 komunikabidetan ateratu ondotik? Bada, betikoek, politikariek eta administrazioak. Ez da sobera eskatzea, ezta gehiegikeria ere, gure eskolan bertze gela bat gehiago bertzerik ez da, gure seme-alaben beharrik betetzeko. Batzuetan eskatu beharrik gabe dena egin dago eta Iruritakoak beti eskatzen eta ez gaituzte aditzen, edo ez gaituzte aditu nahi. Ez dugu ulertzen zergatik Baztango Udalak eta Nafarroako Gobernuak ez duten gurekin 5 minutuz biltzeko borondaterik, Iruritakoentzat hain garrantzitsua den arazo ttiki

honi irtenbidea emateko. UNICEFen haurren eskubideen konbentzioaren arabera, «haurren garapen eta bizirau-pena bermatzeko ahal duten guzia egitera behartuak daude gobernuak». Zergatik gogorazi behar diegu beraien betebeharrak? Ez dakit hau, gurasoen lana den eta aspertzen hasiak gara horrela ibili behar izateaz, administrazioaren aldetik zerbait behar dugun bakoitzean. Zergatik ez du Hezkuntza Sailak gure eskola kontuan hartu eta ikasgela hori gabe ateratu du eskola berriaren lizitazioa? Zergatik ez du Baztango Udalak tenorez erantzun eta gure beharrik transmititu, egoera honetara ailegatu baino lehen? Zergatik izan behar du interes politikoa eskola batean ikasgela bat gehiago egiteak eta ez da gizarte eskaera bati erantzuna ematea soilik?

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)  
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**  
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



**Prentsatik bildutakoak**



Duela gutxi bere negozioaren funtsa diren joareak ikusi omen zituen denda txinatar batean salgai. «Burdinazko edo txapazko joareak ziren, baina ez zute batere soinua onik ateratzen», azaldu digu. Internetez erosteko aukerarik ere badela dio, baina kalitatean alde handia dagoela, eta eskuz eginak direnekin zerikusirik ez omen dute.

«Atez ateko zabor bilketaren sistema alde batera utzi behar izan dugu biztanle kopurua kontuan hartuz, eremu zabalegia hartzen dugulako –Leitza, Lekunberri, Areso, Arano, Goizue- ta eta Larraunen arte- an 6.000 biztanle dira– (...) Praktika hau gero eta errotuagoa dago Gipuzkoan eta emaitza onak ematen ari da irtebide ezin hobea delako».

**Jesus M<sup>a</sup> APEZETXEA**  
Goizuetako joaregilea  
ZAZPIKA, 2010.04.04

**Xabier ZABALO**  
Leitzako alkatea  
D. NOTICIAS, 2010.04.05

**11 galdera labur**

**Nor da Gabezin taldea?**

Sei gaztek osatzen dugun taldea da eta gehienbat plaza girokoa.

**Nola sortu zen taldea?**

Lagun bat eta biak besteei burua berotzen hasi ginen eta pixkanaka sortu zen. Bost mutil ginen hasieran, eta gero hartu genuen Ainhoa Zabaleta goizuetarra kantatzeko.

**Erromeria ala rock kontzertua nahiago?**

Erromeriazaleak gara.

**Musika jotzeko toki bat?**

Malerreka eta Baztan aldean, dantza asko egiten da.

**Non ditu Gabezinek jarraitzaile gehienak?**

Ez dakit... Gehienbat Araitz-Betelu aldean, eta Malerrekan ere bai.

**Gustuko musika talde bat?**

Orain modan dagoen Vendetta ska taldea.

**Hurrengo kontzertua non?**

Apirilaren 17an Lekunberrin, Gazte Egunean.

**Bateria-jotzaileak sasoiak egon behar al du?**

Bueno... Ez, nik us- teez dela asko be- har plazetan jotze- ko.

**Zein da ongi kan- tatzeko sekretua?**

Pixka bat zaindu

egin behar da, eta kontzertuaren aurretik, patxaran kopa bat ez da gaizki etortzen.

**Taldea hain gaztea izanda, jendea harrিতua gelditzen omen da. Zergatik?**

15, 16 eta 19 urteko batzuk ikusi- ta zer egingo dugun galdetzen du jendeak, baina gero harrituak gel- ditzen dira eta hain gazterik horre- la ibilita meritua badugula esaten dute. Nahiko ongi joan zaigu orain arte eta ea nola segitzen dugun.

**Larunbat arratseko plana?**

Arratsadetan gehienetan entsaia- tu, eta gauean, juerga edo lana bal- din badago, ba-  
hara.



**Joseba OREJA → Gabezin taldeko bateria-jotzailea**

Garden Center  
**Endanea**

Asteartetik larunbatera: 09:00 - 20:00  
Igandea, astelehenak eta jaiegunetan: 09:00 - 14:00

Sasoiko landareak prezio onenetan: geranioak, begoniak, hortentsiak...  
Mintegi, hazitegi eta haziak. Barazki landareak  
Zure lorategia zaintzeko produktu ekologikoak  
Dekorazioa eta opariak  
Etxera eramateko zerbitzua

**ENDANEAN, BEHAR DUZUN GUZTIA AURKITUKO DUZU**  
Jaizubia Auzoa, 40 (N-1 bidean, Hospitalaren parcan) • HONDARRIBIA • T. 943 641 710 • [www.endanea.com](http://www.endanea.com)

# GIZARTEA



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Gimnasia bestan parte hartu zuten ia 80 kideak.

**URTEROKO BESTA → ARKUPEAK ELKARTEAREN GIMNASIA BESTA**

## Sasoiak adinik ez duela erakutsi dute 80 kidek

Guztira 300 lagun elkartu dira bazkaltzeko

**TTIPI-TTAPA | BERA**

Arkupeak Erretiratu eta Jubilatuen Elkarte-

ak urteroko gimnasia besta egin zuen apirilaren 8an. Aitzinetik Iruñeko Larrabiden eta Anaitasun egiten bazuten ere, 2004az geroztik Berako Toki-Ona kiroldegian elkartzen dira eta aurten ere, hantxe aritu ziren Bera, Do-

neztebe, Goizueta, Elizondo, Leitza, Sunbilla eta Urdazubiko 80 bat kirolari, euren irakasle-en aginduetara.

Herriz-herriko kirol saioa akautu bezain abudo, 300 bat lagun Zubiondo jatetxera joan ziren bazkaltzera.

### PARTE-HARTZAILEAK

**BERA (14)**

Begoña Gomez  
Maritxu Martikorena  
Josefina Iglesias  
Maria Jesús Zubieta  
Carmen Mitxelorena  
Carmen Jiménez  
Maddi Mikelperizena  
Malen Barandiaran  
Angelita Corral  
Angelines Estalayo  
Justa Telletxea  
Pura Correa  
Pepita Agirre  
Ester Iñarga

**LEITZA (18)**

Maritxu Alduntzin  
Pilar Alkoz  
Tere Perurena  
Paquita Aierdi  
Itziar Sagastibeltza  
Juanita Escudero  
Serafina Ezkurra  
Sebastiana Ezkurra  
Pilar Martinez  
Amparo Azpiroz  
Carmen Petirena  
Inaxi Lujanbio  
Pilar Urkiola  
Paquita Urkiola  
Lourdes Erbiti  
Tere Arraiago  
Carmen Rodríguez  
Eusebio Maritorea

**GOIZUETA (20)**

Milagros Narbarte  
Mari Carmen Tomasena  
Luis Elizegi  
Antonio Rodríguez  
Maria Pilar Arratibel  
Maite Zabala  
Paquita Goizueta  
Milagros Goizueta  
José Ramón Arozena  
Satur Salaberria

Conchita Altamira  
Mónica Perurena  
Juana San Miguel  
Mari Carmen Berroeta  
José Antón Elizegi  
Asun Apezetxea  
Felisa Salaberria  
Cecilia Perurena  
Arantxa Berroeta  
José Goizueta

**URDAZUBI (4)**

Miguel Migeltorena  
Francisco Menta  
Anita Menta  
Teresita Bidart

**ELIZONDO (17)**

Maria Dolores Etxegarai  
Juanita Dendarrieta  
Asun Alti  
Carmen de la Flor  
Asunción Jaurena  
Maritxu Oharriz  
Milagros Zelaieta  
Maria Jesús Gamio  
Conchita Iturriria  
Maria Jesus Zubiri  
Maria Jesus Etxandi  
Rosa Mendiburu  
Milagros Gamio  
Juli Irigoien  
Marcelina Ormart  
Conchi Jauregi  
Maria Angeles Narbarte

**DONEZTEBE (4)**

Maria Josefa Arretxea  
Mariela Olaizola  
Maritxu Mutuberria  
Asunción Telletxea

**SUNBILLA (4)**

Mari Carmen Errandonea  
Francisca Iriarte  
Teresa Agirre  
Juana Mari Agirre

# PARO

## eguna

gure eskualdearen defentsan

**12:00-12:30**  
**KONTZENTRAZIOAK**

Arantzako plazan  
Berako udaletxeko plazan  
Lesakako Beheko plazan  
Igantziko plazan  
Etxalarko plazan

**13:00etan**

**MANIFESTAZIOA**

Berako Altzate plazatik

**APIRILAK**  
**22**  
**ORTZEGUNA**  
**12:00-14:00**

GELDIALDIA → ARANTZA, BERA ETA ETXALARKO UDALAK

## Apirilaren 22rako paro eguna deitu dute Bortzirietako hiru udalek

13:00etan manifestazioa egingen da Beran

### TTIPI-TTAPA

Egoerasozioekonimikoarekin kezkatuta, eta *Gure eskualdearen defentsan!* lelopean paro eguna deitu dute Arantza, Bera eta Etxalarko Udalek apirilaren 22rako, ortzeguna.

12:00etatik 14:00etara egingen da geldialdia. 12:00etatik 12:30era kontzentrazioak egingen dira Arantzako plazan, Berako Herriko Etxeko plazan, Lesakako Beheko Plazan, Igantziko pla-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

*Gure eskualdearen defentsan!* izenburupean eta krisi ideologikoari aurre egiteko helburuarekin indarrak biltzeko batzarra egin zen apirilaren 14an Lesakako Kasinon. Arantza, Bera eta Etxalarko alkateek azkeneko bi urteotan bereziki egindako ekitaldien eta mobilizazioen segida bezala aurkeztu zuten ekitaldia.

zan eta Etxalarko plazan. 13:00etan, berriz, mani-

festazioa abiatuko da Berako Altzate plazatik. Ha-

inbat eragilek bat egin dute deialdiarekin.

FUNVERA → LAB-EN SALAKETA

## Errelebo kontratuarekin Funveran sartuko diren lau langileak ELAkoak direla salatu du LABek

LABeri «arraroa» iruditu zaio gertatutakoa

### TTIPI-TTAPA | BERA

47 langilekaleratu ondok, enpresak behar izanez gero, hurrengo lau urteetan langileren bat kontratatzekotan kaleratutakoan artetik egingen zuela eta lau errelebo-kontratu egingen zituela erranez itxi zuten urtarri-lean akordioa Funveran.

Hitzartu ziren errelebo-kontratuak apirilean egitekoak zirenez, LABek ohar bidez jakinarazi duenez, proposamena egin zion ELAri: «lau errelebo kontratuak kaleratutako langile zaharrenei egitea, pentsatzen genuelako, lan merkatuan zailagoa dutela lana aurkitzea eta hasiera batean planteatu ziren 55 kaleratuetatik 47ra jeitsi zituztenean kriterio hori erabili zutelako». Proposamena Langileen Batzordeak enpresari egitea nahi zu-



ATXIBOKO ARGAZKIA

Greban bertan behera utzi ala ez erabakitzeko urtarri-lean egindako botazioa.

en LABek, «langileen afiliazio sindikala kontuan hartu gabe».

Martxoaren 22an zuzendaritzak bilerara deitu zuen komitea eta errelebo kontratuekin ELAko lau afiliatu sartuko zirela erran zuen. LABek kritikatu duenez, «ELAk ez zuen gure proposamena erantzun eta enpre-

sak ez zuen inolako kriteriorik erabili kontratuzioak egiteko».

LABeri «arraroa» iruditu zaio gertatutakoa: «ez dugu erraten ELA eta enpresaren artean tratuerik egon denik, baina badi-ri greba bukaeran ELAK enpresari eginiko faborea bueltatu diola orain honek».

### BIDASOALDEA

Bertsopaper Lehiaketa abian da

### TTIPI-TTAPA

Bidasoaldeko Bertsopaper Lehiaketaren XXIII. edizioa zabalik dago. Berako Kultur Batzordeak eta Bortzirietako Berts Eskolak antolatu dute aurten ere, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntzarekin, eta Baztan-Bidasoaldea inguruan bizi diren entzatzat da. Jatorrizko, argitaratu gabeko eta bertze lehiaketaren batean saritu ez diren bertsoak baino ez dira onartuko, eta gaia, doinua eta neurria norberak aukeratu beharko ditu. Hiru mailatan banatu dute lehiaketa: A mailan 12 urte arteko haurrek parte hartuko dute eta guttienez bi bertso edo lau koplak osatu beharko dituzte. B mailan 12tik 18 urte arteko gazteak sarituko dira eta guttienez lau bertso egin beharko dituzte. C mailan, azkenik, 18 urtetik goitikoak sartuko dira eta guttienez zortzi bertso egin beharko dituzte.

Bertsoak maiatzaren 14a baino lehen helbide honetara bidali beharko dira: *Berako Kultur Etxea. Bidasoaldea XXIII. Bertsopaper Lehiaketa. Eztegera pasealekua 11, 31.780 Bera*. Sariak maiatzaren 28an Berako Kultur Etxean egingen den ekitaldian banatuko dira. Informazio gehiago: [www.berakoudala.net](http://www.berakoudala.net).

## BERA

UDALA → KULTUR ETXEA BERRITUA

# Musika, kantua eta antzerkia ortziraleko Kultur Etxearen inaugurazioan

Aulki berriak inklinazioan paratu dira eta tresneria ere berri da

## TTIPI-TTAPA

Txistulari edota trikitilariak, Uxanekoan antzerkia, Joseba Irtzokiren musika doinuak, Gure Txokoa Dantza Taldearen saioa, Musika Eskolako emanaldia, Ertz eta Bertso Eskolakoak... Horiek eta bertze hainbatek parte hartuko dute ortziral honetan, apirilak 16, eginen den Kultur Etxe berriaren inaugurazioan. 19:00etan hasiko dira ekitaldiak.

## EGIN DIREN LANAK

Bertzeak bertze, harmailak berri dira Kultur Etxean, aulki berriak paratu dira eta gainera inklinazioan. Horrez gain, eszenatokiko tresneria ere berri da. Lan hauek egiteko Nafarroako Gobernuaren laguntza izan du Udalak, gutti goitibeheiti gastuaren erdia, 127.878,98 euro.

## Pilotariak Belateko finalean

Belate Elkartek antolatzen duen klub ar-

teko txapelketaren finala jokatu ziren martxoaren 28an Otsagabian eta

Ezkarotzen eta Gure Txokoako pilotariak ere finalisten artean izan zi-

ren: Aurrebenjaminetan, Josetxo Sese eta Asier Telletxeak 12-18 galdu

zuten Aldabideko Ihoa eta Olaetxearen kontra. Benjaminen mailan, aldiz, Gure Txokoako Mikel Eltzaurdia eta Yago Canterok txapela eskuratu zuten, Igantziko Biltokiko Jokin Mitxeo eta Enaitz Telletxeari 18-13 irabazita.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

## Guardia zibil eta foralen jokabidea salatu dute Udalak eta gazteek

Aitzinekoan aipatu bezala, Guardia zibil eta Foru poliziek behin eta berriz egin dituzte mehatxu, miaketa, umilazio eta abarren aitzinean euren desadostasuna adierazteko, Kaxerna Gaztetxeak prentsurrekoa eskaini zuen martxoaren 31n, Udalarekin batera. Gaztetxean prestatutako idatziak Udalaren, herriko 40 komertzio eta eragileren eta 170 norbanako baino gehiagoren atxikimendua jasoa du dagoeneko. Udalak, erraterako, martxoaren 25eko batzarrean, ahobatez onartu zuen aipatu idatzia. Kontroletan gelditzeaz gain, gorputz osoan eta kotxeetan ere miaketak egin dituztela, eta «harrokeria izugarri mehatxatu» dituztela salatu du Kaxernak, «sabemos donde vivís y os pillaremos» bezalako esaldiekin. Horrez gain, «edozein arratsaldetan kale erdian gelditu eta publikoki galtzak jaistea behartu» edo «zibilez jantzita eta kotxe zibilekin atzetik segitu era kriminalak bagina bezala gelditu ondoren, berriz ere miaketak eta mehatxuak» egin dituztela kritikatu dute Kaxernatik. Josu Irtzoki alkateak, bere aldetik, «zerbait serioagoa gertatzeko beldurra» adierazi du, «bereziki gauez». Irtzokik gogoratu zuenez, «2007an kasu larri bat izan zela guardia zibilaren patrol batek eragindako istripuarekin, 2008an ostatu bateko zerbitzariarekin izandako istiluagatik salaketa bidali zuen Udalak Barne Departamentura, 2009an ere arazo beretsua errepikatu zen ostatu batean eta kasu honetan Elma Saiz Barne Departamentuko buruari eskutitza bidali eta Guardia Zibilaren buruarekin ere bildu ginen, baina instituzioekin bilduagatik arazoak berdin segitzen du eta ez da moldatzen. Ea prentsaren bidez emaitza hobea lortzen dugun».

## Antzerkia larunbatean

Euskara Batzordeak antolatuta, Hika Teatro taldearen *Aitarekin bidaiari* antzezlan ikusteko aukera izanen da larunbat honetan, apirilak 17, Kultur Etxean. Sarrerak zortzi eurotan egonen dira salgai 21:00etatik aitzinera, eta ikuskizuna 22:00etan hasiko da.

## Olerki errezitala

Anasapsek olerki errezitala antolatu du hilaren 22rako. Musika Eskolan izanen da, 17:30ean hasita. Sarreara dohainik.

## Musika Eskolaren kontzertua

Isidoro Fagoaga Musika Eskolaren 30. urteurrenaren harira, Berako Abesbatzak eta txistulariek kontzertua eskainiko dute apirilaren 24an Kultur Etxean. 20:30ean hasiko da eta sarrera doakoa izanen da.



**OSPAKIZUNAK** → 'GAZTIK GELDIRIK HERRIA HILIK, MUGI HADI GAZTE!' LELOPEAN

## Hainbat ekitaldi izanen ditu apirilaren 17ko Gazte Egunak

Arratseko kontzertuan Etnia, Xutik, Vendetta eta Gozategi taldeak izanen dira

### Aitor AROTZENA

Lesakako Gazte Asanbladak antolatutako Gazte Eguna apirilaren 17an ospatuko da, *Gaztik geldirik, herria hilik, mugiri hadi gazte!* lelopean. 09:30ean diana izanen da gaitero eta txistulariekin eta ondotik gosaria plazan. 10:00-etako hasiera ekitaldiaren ondotik, 11:00etan bisita historikoa egingen dute herrian, 12:30ean paella txapelketa. 14:00etan bertso bazkaria izanen da eta paella, xolomoa, postrea, kafea eta kopa izanen da menuan. 17:00etan jokoak izanen dira, 19:30ean poteo musikatua eta 22:30ean kontzertuak Etnia, Gozategi, Vendetta eta Xutik taldeekin. Txoznetan bokatak ere izanen dituzte saltzeko. Bazkarirako bezala, kontzerturako txartelak ere bortz eurotan salgai daude.

### Tantirudantza

Tantirumairu Euskal Folklore Taldeak Udala-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Karrikaz karrika ibili ondotik, plazan eskainiko dute emanaldia dantza taldeek.

ren laguntzaz antolatutako Tantirudantza ospatuko da aurten ere, apirilaren 25ean. Goizean, Urretxu, Getaria eta Fal-

tzeko dantzari tikiak, herrikoekin batera, karrikaz karrika ibiliko dira eta 13:00etan plazan bilduko dira, beraien emanal-

dia eskaintzera. Arratsaldean, 17:30ean, Patxin eta Potxin pailazoek emanaldia eskainiko dute plazan.

**LEHIAKETAK** → LANAK APIRILAREN 30A BAINO LEHEN AURKEZTU BEHAR DIRA

## Sanferminetako kartel eta programaren azal lehiaketak deitu ditu Udalak

### A. A.

Udalak, Sanferminetako programaren azala eta bestak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du, Lesakan jaio edota bertan bizi direnentzat. Lanak udal bulegoetan aurkezteko epea apirilaren 30eko 13:00etan akautuko da, ohikoa den sistema erabiliz. Lan guzietan, *Lesaka. 2010eko*

*Sanferminak* esaldia agertu behar du.

Kartel nahiz azal lehiaketen irabazleek 500 euroko saria eramanen dute. Kartela argitaratu egingen da eta azaleko lehen saria programaren aitzineko azalean joanen da.

Bertze aldetik, gibeletako azala aukeratzeko, Lesakako ikastetxeetan ikasten ari diren 6 urte-

tik 12ra bitarteko haurrei zuzendutako portada lehiaketa ere deitu du Udalak. Hauen lanak ere apirilaren 30erako aurkeztu beharko dira udal bulegoetan. Lehenbiziko saria Lesakako dendetan eskolako materiala erosteko 300 euroko balioa duen taloia izanen da, eta irudia programaren gibeletako azalean argitaratu ikustea, noski.

### FLASH

#### Elbarritasun jardunaldiak

Lesakako Osasun Zentroak, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Anfas eta ASPACEK Udalaren laguntzaz antolatuta, IV. Elbarritasun Jardunaldiak ospatuko dira apirilaren 19an, 17:00etatik aitzinera, Udalak Antoiu 27an duen egoitzan.

#### 'Tormesko Lazaro Txikia' Antzerkia liburutegian

Apirilaren 23an, *Tormesko Lazaro Txikia* antzezlana ikusgai izanen da 18:00etatik aitzinera liburutegian. Nafarroako Liburutegi Publikoen Sareak antolatuta du ekitaldia, Liburuaren Egunaren inguruan.

#### 'Negua ospatuz' dokumentala

Apirilaren 15ean *Negua ospatuz* dokumentala eskainiko du Eusko Ikaskuntzak Antoiu 27ko aretoan, 19:00etan. Neguan izaten diren besta eta tradizioen aukeraketa bat jasotzeko dokumentalean, tartean Lesakako Olentzeroa.

#### Bertso saio Andra Mari Zahar Etxean

Apirilaren 17an, larunbatean 17:30ean bertso saioa izanen da Andra Mari Zahar Etxean, Bortzirietako bertso eskolak Udalaren laguntzaz antolatuta.

**Lanchas**  
PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERMIZATZEAK  
ESTALDURA OROKORRAK  
Bera - Tlfnoa: 948 630 735 - 467 406 781

**BOZZ-AID**  
LANTZARITZA  
Tlfnoa 01 - 71 98 0020 - LESAKA

**ALVARO LOPEZ**  
Eskaiola, pladur lanak,  
sabal modularra, tabiuekin  
OBRA ZIURTAGIRIAK  
LESAKA • 651 704 593

# ETXALAR

UDALA → AZPIEGITURAK

## Bekolanda auzoa itxuraberrituko du Udalak hainbat obra eginda

Farolak paratu, espaloiak berritu eta parkea eginen dira

### Iruñe eta Itsaso

Bekolandan obrak egiteko baimena eman zenetik lau urte pasatu dira eta promotoreak egin beharreko obrak egin gabe utzi dituzenez, Udalak bere gain hartu ditu. Bere garaian promotoreari kobratutako abala erabiliko da lan hauek egiteko eta falta dena promotoreak ordaindu behar du. Hortaz, hemen aitzinera, Bekolanda auzoa txukunagoa geldituko da, espaloi zati berriak, parke ttiki bat eta farolak paratuta.

### Turismo Bulegoa

Turismo Bulegoa ireki zuten Aste Santuan Kultur Etxean, Ortzegun Santutik Bazko Astelehe-

nera bitartean. Axun Maia izan zen bisitarien informazioa emateaz arduratu zena eta erran digunez arrakasta handia izan du. Bisitariak gehien eskatu diotena herriari buruzko informazioa izan da: mendiko ibilbideak eta Elizako hilerrien historia. Eskualdeko informazio bila ere hurbildu zaizkio, Zugarramurdi eta Sarri buruz galdetuz batez ere. Aste Santuko egun hauetatik jende gehien ibili zena ortzeguna izan zen, 112 bisitariekin. Zerbitzu arrakastatsua izan da, denetara oporraldi honetan 301 bisitari hurbildu baitira.

### Altxataren batzar orokorra

Martxoaren 27an izan zen Altxata Kultur Elkarreko batzar orokorra. Joan den urteko gorabeheraz solastu ziren, baita 2010ean eginen direnez ere: Gasna Feria eguna



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Itxura berria hartuko du Bekolandak lanak bukatzen direnean.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

### Bortz bataio Bazko igandean

Oraingoan herriko bortz bikotek bataiatu dituzte euren haurrak. Oier Aginagalde Iparragirre, Argiederrekoo; Oihan Elizalde Mitxelena, Tximistako Bordakoo; Eneritz Aranburu Galarregi, Topaldekoa; Maialen Gastearena Irisarri, Ibaiondokoo eta Ohian Irisarri Agesta, Gorosurretakoo nahiz eta Irunen bizi. Aspaldiko urteetan bataioak urtean bitan egiten baziren ere, orain noiznahi bataiatzen ahal izanen dira haurrak. Pello Apezetxeak erran duenez, maiatzaren 2an bertze bi bataio eginen dira.

eta Usategietako igandea izanen dira aurtengo ekitaldi nagusiak. Kankailuen topaketari buruzko balorazioa egin

ondotik, gastu handiak direla eta, bi urtetik behin egitea erabaki zen. Junta ere berritu zuten. Orain arte juntakide izan

diren Arantxa Danboriena, Mireia Martinez eta Leire Olagarai atera egin dira eta Axun Maia eta Lorea Arangoa sartu.

**MARTIKO**  
Martiko  
Pol. Zaien, s/n.  
31790 Bera, Nafarroa  
Tel: 948 625018 Fax: 948 625036  
www.martiko.com  
*Asistatzen edukiak eta enpresak*

**DENDA**  
ORDUTEGIA  
ASTELEHENE  
ORTZALERA

8:30etik  
12:30era

14:30etik  
17:00etara

Martikorekin  
zu zeu  
sukaldari.

**IRU BIDE**  
Energia - Auzoak

Barriz, 31. LESAKA  
Tel: 948 637 127

**XATURETXEA**  
ZABALA  
JATETXEA

T: 948 637 260 - LESAKA

**ZOANSA**

SEAT  
VW  
HYUNDAI  
Audi

**MARKA GUZIEKON KONPONKETA**  
Banaria, 2 - Alkaiaga Industrialdea  
LESAKA (samera Beratik)  
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

OSPAKIZUNAK → UDABERRIKO BESTAK

## Apirilaren 30etik maiatzaren 2ra izanen dira Udaberriko Bestak

Bertso afarira joateko hilaren 24a baino lehen eman behar da izena

### TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Euskara Batzordeak antolatuta, Udaberriko Bestak izanen dira apirilaren 30etik maiatzaren 2ra. Hurrengo alerako egitarau osoa emanen dugu, baina horren barne dago apirilaren 30erako, ortziralarekin, Biltokik antolatu duen bertso afaria. Aitzineko alean erran genuen Jon Maia eta Julio Soto etortzekoak zirela, baina azkenean Iker

Zubeldia etorriko da, Nafarroako txapelkun berriarekin batera. Bazkideek 25 euro ordaindu beharko dute afariarengatik, eta bazkide ez direnek 27 euro. Izen emateko zerrenda jarria da, eta irekia egonen da apirilaren 24ra arte.

### Bodegara bisita

Oraindik goiz bada ere, Biltokikoak Iñurrieta bodegak ezagutzera joateko planak egiten ari dira. Maiatzean xehetasun guztiak jakitera emanen dituzte, baina oraindik goz aitzindu nahi izan dute ekainaren 5ean izanen dela. Hasiara bateko asmoa egun pasa egitekoa da: goizean atera, bode-



ARGAZKIA: NAFARROAKO HERRI KIROL FEDERAZIOA

### Neska-mutikoak herri kiroletan

Ez zuten finalerako edo azken jardunaldirako txartelik eskuratu, baina ederki pasatu dute neska-mutikoek Nafarroako Kirol Jolasetan. Hurrengo urtean berri!

ga bisitatu, bertan bazkaldu eta ilunabarrerako buelta. Autobusa ere antolatu nahi dute.

### Buruhaundi eta erraldoiak konpontzeko asmoa

Aurten herriko buruhaundi eta erraldoiak konpondu nahi dira. Horretarako, Biltokik Nafarroako Kutxan *Zeuk aukeratu, zeuk erabaki* programaren barrenean


proiektua aurkeztu du, kuitxa horretako bezeroek egindako aportazioekin ahal den neurrian gastuak finantzatzeko. Elkarrean zenbait lan eta konponketa egiteko asmoa ere badute, eta horiek ere aurkeztuko dituzte programa horretara.

### Biltokiko pilotariak

Belate elkarteak antolatzen duen pilota txapelketako finalak jokatu ziren martxoaren 28an

eta tartean izan ziren Biltokiko gaztetxoak ere.

Umeak C mailan, Beñat Iantzi herritarrak Antton Petrirena lesakarra izan zuen lagun; Umeen mailan, Jokin Mitxeo eta Enaitz Telletxea aritu ziren; eta Kimuak B mailan, Oihan Canabalek Lesakako Urki Txoperena izan zuen aitzinean. Txapela ekarri zuena Unai Telletxea izan zen, haurren kategorian, Lesakako Jon Olaizolarekin.



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda

andueza

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea  
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN  
c.andueza@euskalnet.net

## ARANTZA

KIROLA → MENDI ITZULIA MAIATZAREN 23AN

# Mendi Itzuliko informazio osatua 'www.menditzulia.com' en ikus daiteke

Mendi ibilaldiko kamisetak eta jertseak salgai daude

## Nerea ALTZURI

2003an Ekaitza Elkarteko Mendi Taldeak eta herriko zenbait mendizalek -tartean Xabier Zubietak Zubi zenak-, Mendi Itzuliaren lehenbiziko urratsak eman zituzten. Herriko mendi gainetan barna ibilbidea zehaztu eta ordutik honat lau aldi joan dira. Inguru eta paisaia ederrak ezagutu dituzte eskualdetik nahiz haratagotik etorri diren mendizaleek. Beti ere, herriko kaxkoa begibistan, Arantzako zirkoa egitea da xedea.

Hasieran bi urtez segidan egin bazen ere, 2004an bi urtetik behin egitea erabaki zen. Horrela, 2003, 2004, 2006, 2008ko edizioak gibelean gelditu dira. Batzuek aitzineko urteetako esperientzia izanzen dute aurtengo maiatzaren 23an eginen den bosgarren

edizioan; bertze batzuek, ordea, estreinakoz aukera izanzen dute.

Bertze edizioetako harrera ikusgarria eta arrakastatsua izan da. Ehunka lagunek parte

hartu dute eta giro lainotua, langarra, eguraldi aherria... Denetarik izan da. Baina egin dutenek merezi duela diote.

Dagoeneko guzia prestatzen ari dira: Men-

di Itzuliko eskuorriak, jertseak eta kamisetak ohiko lekuetan daude.

## WEB ORRIA

Berrikuntza gisa, nahiz duen horren eskura,

[www.menditzulia.com](http://www.menditzulia.com) webgunea paratu da martxan aurren, informazio guztiarekin.

Mendizaletasunak ez du hutsik egiten, urterokoa da Ternida Eguna, Goizuetako ateraldia ere hortxe izaten da Mendi Itzulia tokatzen ez den urtean, Leitzara ere irteera egin zen lehen aldiz joan den urtean, eta orain Mendi Itzuliaren txanda da, elkartearentzat urteko hitzordurik garrantzitsuenetako bat. Bazkide ez direnek nola herritar ez direnek modu batean edo bertzean babes handia eskaintzen duten ekimena da.

## Sendotza

Maiatzaren 2an herriko eta Igantziko gazte talde batek Sendotza eginen dute. Bi herriotan txandaka egiten da elizkizuna eta aurren Arantzaren tokatu da. Maitane Altzuri, Itxaro Etxague, Amaia Lukanbio, Markel Jorajuria, Lidia Indakoetxea eta Silvia Telletxea dira Sendotza eginen duten sei herritarrak.



ARGAZKIAK: MIKEL LARRETxea

## Gustura oraingoan ere

Martxoaren 27an egindako Mozorro Besta ederki joan zen. Jendetza herri-kirol saioan, eta ia ehun afaltiar Aterpen egindako bertso afarian, Maia eta Irazu lagun. Gero Salaberrirekin dantzaldia izan zen eta besta biharamunera arte luzatu zen. Mozorro Xurien taldea hurrengo urtean antolatzen ilusioz gelditu izanzen da.

**carrho**  
gocrologia olinpikoa

7<sup>o</sup> de entlegara 25 baxjo  
48700 Bera (Navarra) 1948 63 08 99  
www.sarobe.net

**zalain**  
JATETXEA - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g  
31780 Bera  
t. 948 631 106  
w. www.zalain.com

**zalain**

Tel: 948 634 179

**ARANTZA**

**ATERPE**  
ALBERGIA

**ALBERGIA - JATETXEA**

**José I. Gonzalez Enguita**  
pinturak

barrukoak eta fatxadak

tel. 666 235 466

**elika**  
Dietetika - elikadura

- Aholkularitza dietetiko eta nutricional
- Dieta personalizatuak
- Gaituraz kontrolatuaren atariora
- Elikadura hazkerta
- Tinkatu osasunari
- Esporadikoki egiten diren arazoak
- Trasturak irabazteko eta prebentzio
- Herentzako arazoak

Iker Andueza Larra  
Itzua, 6 beheko - BERA - Tel. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com



IDIAZABALGO GAZTA → ZAZPIGARREN ALDIZ

# Erregulartasun eta kalitatearen saria jaso du aurten ere Lizun gaztandegiak

Sari bera hartuko du apirilaren 21ean Iruñean

## DATUA

# 7

**ALDIZ**  
eskuratu du  
**Lizun gaztandegiak**  
kalitate eta erregulartasun  
onenarengatik saria.

### Jaione OTXANDORENA

Idiazabal Gazta Jatorri Izendapenak urtero banatzen duen kalitatearen eta erregularitasunaren saria Epetxenekobordako Lizun gaztandegiarentzat izan dira aurten ere. Apirilaren 7an Ordizian egindako Artzain Egunean jaso zuen kalitate eta erregularitasun onenarengatik saria, zazpigarrena dagoeneko, eta bosgarren urtez segidan.

Gisa berean, Nafarroako Idiazabal gazta berriaren denboraldia irekitzen den egunean, apirilaren 21ean, sari be-

ra hartuko du Sunbillako gaztandegiak Iruñean, Napardi elkartearekin.

Saritutako gazta *Endara* eta *Mendaur* izenekin merkaturatzen dute Petxenekobordak, baina horrez gain, *Lizun* izenarekin ere bertze bat saltzen dute, dagoeneko 25 urteko goiti dituen marka, hain zuzen, Idiazabalgo Izendapena sortu aitzinetik hasi baitziren *Lizun*-ekin lanean.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Bi astez bi txapel

Iker Espelosin –argazkian– pilotari gazteak bi astez bi txapel irabazi ditu, Nafarroako txapelketan bat eta Belatekoan bertzea, bietan Enaitz Anso legasarrarekin batera. Nafarroako txapelketan ligaxkako partida guztiak irabazi ondotik, San Jose Egunean Zizur Nagusian jokatu zuten finala, eta 18-13 irabazi zioten Burlatako Mugiro eta Ezkirozi. Belateko txapelketan ere partidarik galdu gabe ailegatu ziren martxoaren 28an Otsagabian jokatu zen finalera. Final honetan ere txapela eskuratu zuten, 18-15 irabazi baitzieten Lesakako Txoperena eta Igantziko Kanabali. Ikeren beste anaia ere, Andoni, nahiko ongi aritu da, Nafarroako txapelketan finalerdietara ailegatu zen baina ez zuen finalerako txartelik lortu. Belateko txapelketan, berriz, finalera ailegatu zen Narbarteko Albiasurekin batera, baina finalean galdu egin zuten Igantziko Telletxea eta Lesakako Olaizolaren aurka.

**Etxeko Ardi Gazta**  
**Lizun**  
GAZTANDEGIA  
Pexenekoborda · SUNBILLA · Tel: 948 450 862

MERTZERIA  
*Leñe*  
LENTZERIA  
Tel: 948 627 614  
Belatxo Plaza, 10 · LESAKA

**Alberto RETEGI**  
abokatu  
abokatu  
© 948 630 763 · Aitzate, 17 · BERA

**CAMPING BIZTIGAIN**  
OSTATU JATETXEA

- pintxok
- bokidak
- txakur
- potaje konfesionala
- menuak
- kofete

17791 SUNBILLA NAFARRA  
Tel: 948 402 342  
948 402 343  
www.biztigain.com

**TNC PUERTAS NUEVA CASTILLA**  
**AGENTEA ANTON LEGORBURU GOÑI**

Ate berriak kolokatu eta reparazio lanak

Mugikorra: 670 497 485 • Tailerra eta faxa: 943 630 774

## DONEZTEBE

MERKATARITZA → DONEZTEBARRAK ELKARTEAREN EKIMENEZ

# Tunezera bidaia zozketatuko dute merkatariek bezeroen artean

Apirilaren 24ra bitarte erosten dutenek parte hartuko dute

### TTIPI-TTAPA

Udaberriarekin batera, hainbat ekimen abiatu dituzte Doneztebarrak Merkatarien Elkartearen. Horien artean, Tunezera bi lagunetat aste beteko bidaia zozketatuko dute. Martxoaren 15etik apirilaren 24ra bitartean elkarteko dendetan erosten dutenek hilaren 24an egingen den zozketan parte hartuko dute.

Elkarteko bazkide diren komertzioetan, bertalde, eskuorriak banatu dira hainbat galderekin eta horiei erantzuteagatik, 100 euroko erosketa txartel baten zozketak ere sartzeko aukera izanen dute erosleek, erantzunekin batera erosketa-tiketa aurkeztuz.

### MARKATARIAK KARRIKETAN

Maiatzaren 1ean, ka-

rrikara aterako dira merkatariak. Eta goizean goizetik, haurrendako ekitaldiak, musika, dantza, trenan herrian barna... izanen dira.

### Eskubaloia... zergatik ez?

Eskubaloia gazte txoen artean zabaldu-

hi du Erreka Kirol Elkartek eta helburu horrekin, kanpaina berria kanparatu du martxan heldu den denboraldiari begira: *eskubaloia... zergatik ez?* izeneko. Intersa duen edozeini dago zuzendua, baina bereziki, 1996, 1997, 1998 eta 1999 urteetan jaiotako mutili.

Bi entrenamendu egingen dira. Lehena Elizondoko kiroldegian, Baztango jendeari zuzendua, apirilaren 20an, 18:00etan. Bertzea, berriz, Doneztebe eta inguruko herritarrei zuzendua izanen da, eta hitzordua apirilaren 22an, ortzeguna, 19:30ean kiroldegian egingo dute. Txomin Min-

degia eta Pilar Olalla egingen dira entrenamenduan, eta Errekarekin eskubaloian jokatzeko prest dauden gazteek haratjotan beharko dute.

### ENTRENATZAILEEN IKASTAROA

Bere garaian iragarri bezala, entrenatzaileen bi ikastaro egingen dira: oinarrizko mailakoa lehenbizikoa eta eskubaloien inguruan bigarrena. Eta oinarrizko mailakoak badu data: maiatzaren 11n hasiko da, eta 13an, 18an, 20an, 25ean eta 26an egingen da. Hiru orduko sei klase ematen dira, eta horrez gain, ekainaren 3an ebaulazioa egingen da.

Ikastaroa baztandarrekin batera egiteko denez, seguruenik Oronoz-Mugairin egingen da, 18:30etik 21:30era, eta bertzeak bertze, nutrizioak, kirol heziketa, lehen sorospena, gurasoak eta abar landuko dira, klase teoriko eta praktikoak egingez. Gastuak Erreka Kirol Elkartek bere gain hartuko ditu.



ARGAZKIA: WWW.ERREKA.ORG

### Sasoi betean

Alfredo Telletxea, Xanti San Migel eta Ana Zelaieta sasoi betean dabilta. Martxoaren 28an, erraterako, Urnietako Mendi Laisterketan izan ziren eta ordukoa da argazkia. Eta apirilaren 11n Beran egitekoa zen Mendi Marato Erdian ere parte hartzeko zen Zelaieta. Eutsi diezaietela sasoi horri!

**EDARIAK**

**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. Fax: 948 63 10 27

**EZKONTZARAKO ESKAINTZA BEREZIA**

Andregaiaren erramua + elizako loreak + detaileak egingez gero **KOTXEKO LOREAK OPARI**

**ESTHEA**

NARBARTE  
T. 948 59 22 00

*Serpentina kanpoak baditugu*

Kamuztarako detaileak, Kurorenk elizara eta kargosarietara eramaten ditugu, Kanpoak eta berriko landareak, zuhaitzak, patata salgai, berriak eta landareekin aukera zabala...

**ZUBIONDO**  
Jatetxea

Ungardotegia jatetxea

Alasta karrika  
BERA NAFARROA

Tel. 948 63 10 27

**ttipi-ttapa**

www.ttipi.net

UDALA → TURISMOA

## Abendua bitarte errotan lan egiteko bi emakumezko hartu ditu Udalak

Nafarroako Gobernuaren subentzioarekin kontratatu dira

### Fermin ETXEKOLONEA

Martxoko azken asteburuan hasi ziren Errotan lanean Udalak kontratatu dituen bi emakumezkoak, Bortzirietakoa bat eta Mallerrekakoa bestea. Eta bi hauek izanen dira abendu bukaera bitarte Errotan bisitariari harrera eginen dietenak.

Nafarroako Gobernuak langabezia dau denak kontratatzeke ematen duen dirulaguntzarekin hartu dira bi langile hauek.

### 15 INTERESATU

Errotan lanean ari ziteko Udalak eginda-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Bisitariak hartzeko prest dago Errota.

ko deialdiari erantzun ona eman zion jendek eta 15 lagun apuntatu ziren. Baina eskaintza bi lagunentzako zenez, horien artean bi aukeratu zituen Udalak.

### ORDUTEGIA

Ekainaren 14a bitarte neguko ordutegiarekin ariko dira lanean Errotan. Astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 13:00etara eta asteburu eta jaiegunetan, goi-

zez 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldez, 17:00etatik 19:00etara egonen dira bisitariak hartzeko.

Udan, ordea, ordutegi zabalagoa izanen du. Egutero 11:00etatik

DATUA

# 15

LAGUN

aurkeztu ziren Udalak Errotako langileak kontratatzeke egindako deialdian.

14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egonen da irekia.

### Ludoteka egiteko eskaera

Escola ludoteka bihurtu ahal izateko dirulaguntza eskatu du Udalak Nafarroako Gobernuan. Behar den dokumentazioa aurkeztu du, eta orain erantzunaren esperoan egon behar du.

Errotaldea z/g  
Elgorriaga (Nafarroa)  
Tel. 948 45 60 45  
www.balnearioelgorriaga.com

Oraindik ez duzu probatu Elgorriagako Bainuetxeko ur gazietan flotatzea?  
Denbora aunitz daramazu etorri gabe?  
**HAU DA ZURE AUKERA**  
Igerileku termalean erlaxazio zirkuitua **bakarrik 10€ pertsonako**  
**%50 BAINO GEHIAGOKO DESKONTUA**  
Igande arratsaldeetatik ostegun arratsaldeetara (bakarrik arratsaldeetan). Baldintzak kontsultatu

# DONAMARIA

UDALA → AZPIEGITURAK

## Igerileku berria aurten zabaldu nahi du Udalak

Horretarako  
lanean hasia  
da Sasoi  
enpresa

### Iñaki TELLETXEA

Uxarrea auzoan, orain arte haurrentzako parkea egon den tokian, etorkizunean igerilekua izanen da eta dagoeneko lanak hasiak dira. Bi fasetan egingen da obra, eta lehenbizikoan lur mugimenduak eta igerilekuaren zola eta paretak egingen dira. Sasoi enpresa ari da lan hauek egiten, Espainiako Gobernutik Udalak hartuko duen 46.377,99 euroko subentzioarekin.

Hasierako lanak akitutakoan, bigarren fa-

seari ekingen zaio eta honetan egingen da gainerakoa: ur ponpak, zerrakurak, lorategia...

Obra hauen ondorioz, haurren parkea igerilekuaren behekaldera pasako da.

Bertzalde, aipatu, igerilekuko aldagelak joan den urtean estatutik hartu zen dirulaguntzarekin egin zirela.

Lanak ongi joanez gero, igerilekua aurten irekitzeko asmoa du Udalak.

### Pilota ikastaroa

Hasi da pilota ikastaroa. Larunbatetan izaten da, arratsaldetan, 17:00etatik 18:30era eta Juan Luis da irakaslea. Interesatua dagoenak oraindik izena eman dezake.



ARGAZKIA: IÑAKI TELLETXEA

Igerilekua egiteko lanean ari da Sasoi enpresa. Orain arte, haurren parkea egon den tokian kokatuko denez, parkea behekaldean egingen da.



ARGAZKIA: IÑAKI TELLETXEA

### Erabilera anitzeko lokala herritarren zerbitzura

Joan den urtean Espainiako Gobernuak eman zuen 74.335 euroko dirulaguntzarekin eraikin berria egin da herrian. Beheko solairuan igerilekuko aldagelak egin dira eta gaineko solairuan, berriz, erabilera anitzeko lokala. Gimnasia, hitzaldiak, ikastaroak, antzerkia, dantzak... Erabilera edozein dela ere herritarrek erabiltzeko prest dago lokal berria eta interesa duenak baimena eskatu beharko dio Udalari.



## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> <li>☞ Langile autonomoak</li> <li>☞ Nekazariak eta mendi langileak</li> <li>☞ Nominak eta Aseguro Sozialak</li> <li>☞ Lan-Kontrabutarako laguntzak</li> <li>☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>☞ Diru-laguntza ezberdinak</li> <li>☞ Kontabilitateak</li> <li>☞ IVA eta IRPF</li> <li>☞ Errenta aitortpenak</li> <li>☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak</li> <li>☞ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak</li> </ul>
--	---

artekari@artekari.com

**LESACA:** Silliria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050  
**BURLATA:** La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

PAGOLA

EMBUTIDOS

artesanos desde

1940

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

# GIZARTEA

LANA → 1.189 LANGABETUK IZENA EMANA ZUTEN DONEZTEBEN MARTXO HONDARREAN

## Langabeziaren igoera kopuru izugarri handietan gelditu da

Eskualdeko alkateek Enplegu Plana martxan jartzea eskatu dute

### TTIPI-TTAPA

Albiste ona azken urte erdiko etengabeko langabeziaren igoera gelditu dela da. Albiste txarra sekulan izan den langabetu kopuru handietan gelditu dela: 1.114 langabaturekin bukatu zen 2009.urtea, sekulan izan zen kopururik handiena. Urtarrilean 1.214ra igo zen (ehun gehiago) eta otsailean eta martxoan langile ixuria gelditu eta zertxobait jautsi egin du langabetu kopuruak (1.194 eta 1.189). Zenbaki izugarriak, halere.

Duela urte baten gisara, mobilizazioak hasi dira berriz ere, eskualdeak bizi duen egoera sozio-ekonomikoa salatzeko. Apirilaren 10ean manifestazioa deitu zuen LABek Beran eta hilaren 22an pa-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Maiatzean Saverako Erregulazio Espedientea akautuko denean gertatuko dena da orain lan arloko kezkarik handiena.

ro eguna antolatu dute Arantza, Bera eta Etxalarko udalek, ELA, LAB eta eta EHNE sindikatuen eta bertze eragile batzuen atxikimendurakin. Horrez gain, mozio bat eztabaidatzen eta aitzinera ateratzen ari dira Baztan, Bortziariak eta Malerrekako udaletan. Martxoaren 4an Cedernak Alkaia gan duen egoitzan bildu ziren eskualdeko al-

kateak eta mozioa adostu zuten. Horren arabera, Jose Maria Roig Nafarroako Gobernuako Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko kontseilariarekin biltzea eskatu dute eta elkarrekin langabezia subsidiarik gabe dauden langileei zuzendutako Enplegu Plana martxan jartzea, bertze zenbait neurriren artean.

### ITUREN

Bortz hektarea erre ditu suak Mendaur aldean

### Arkaitz MINDEGIA

Haritzak, belagiak eta larreak erre zituen martxoaren 26an Mendaur inguruan sortu zen suteak, guztira bortz hektarea. Larrialdietako zerbitzuak 17:00etan hartu zuen abisua eta Cordovillako eta Oronoz-Mugairiko suhiltzaileak hurbildu ziren iltzaltzera. Lana gogotik egin behar izan zuten, haizeak gogor jo zuelako. Azkenean, 20:00ak aldera lortu zuten itzaltzea, baina halere, suhiltzaileak erremate-lanak egiteko gelditu ziren.

### LANGABETUAK HERRIZ HERRI <sup>(1)</sup>

Arano	7	Goizueta	31
Arantza	26	Igantzi	33
Areso	7	Ituren	21
Baztan	293	Leitza	130
Beintza-Labaien	9	Lesaka	130
Bera	181	Oitz	13
Bertizarana	47	Saldias	3
Donamaria	16	Sunbilla	40
Doneztebe	93	Urdazubi	18
Elgorriaga	10	Urrotz	5
Eratsun	10	Zubieta	13
Etxalar	36	Zugarramurdi	13
Ezkurra	8		

<sup>(1)</sup> 2010eko otsaileko datuak

**BELARRA JATETXEA**

Arantza - DONEZTEBE  
48 45 306  
www.belarrarrestorantea.com

948 631 218  
Kanttonberrri 1, BERA  
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

**KATEA-BIKE**

**BORTZIRI UNSIÕN ANAIK**  
Sukalderako altzariak

Berrou ottoa • LESAKA  
Tel: 948 637 266 • 607 226 691 • Fax: 948 637 511

# GOIZUETA

MENDIALDEA → HONDAKINEN KUDEAKETA

## Hurrengo astean jarriko da martxan zaborren zerbitzu berria

12 puntutan kokatuko dira edukiontziak

### Esteban AROTZENA

Mendialdea Mankomunitateak kudeatuko duen hondakinen bilketa sistema berria apirilaren 19an jarriko da indarrean. Eta jakina denez, kudeaketa berri horrek hainbat berrikuntza ekarriko ditu. Hasteko, orain arte egin ez dena: plastikoa, papera eta kartoia birziklatu eginen dira.

Zaborrontzi kopurua ere murriztu eginen da, eta 12 bilketa puntu izanen dira: Leitzara bidean Arotxan etxean, Peroneko atarian, Urrutinekoko atarian, Belako atarian, Idoitako askan, suhiltzaileen parkean, Juanan tartean, Umore Ona Elkartearen atarian, Txino auzoan, Errekaundin, eskolan eta fabriken inguruan.

Orain arte, aguazila izan da astean bitan kamioiarekin hondakinak

bilidu dituen, baina hurrengo astetik aurrera, Mendialdea Mankomunitateak kontratatu dituen lau langileak arduratuko dira –bat herritarra–. Ohiko edukiontzi berdeak astean lau egunetan hustuko dira, eta urdinak eta horiak astean behin.

Pilak, olioak, lixiba eta gisako hondakin berezientzat Puntu Garbia izeneko beste gune bat ere irekiko da.

### TASAK

Beste aldeketa esanguratsua tasen igoera izanen da. Mankomunitatea osatzen duten herrietan ordaindu beharrekoa berdina izanen da. Bilketagatik, herrigunean bizi direnek 28 euro ordaindu beharko dituzte lau hilabetetik, eta herrigunetik aparte bizi direnek 14 euro lau hilabetetik. Hortaz aparte, Hiri Hondakinen Partzuergoari ere beste tasa bat ordaindu beharko zaio, zaborren tratamenduagatik: lau hilabetetik behin 12,71 euro.



Aldaketarik ezeean, edukiontziak puntu hauetan egonen dira.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

### Gazte konprometituek

Gure gazteek herriarekiko duten konpromisoa harrigarria da. Lehengo astean, beraiek eta eskola-umeak oporretan zeudela aproxtuz, tikienei zuzendutako jokoa, berenduak eta zine emanaldiak antolatu zituzten. Hurrengo ostiralerako, berri, apirilak 23, Mingain zorrotz gaua izeneko festa-lehiaketa prestatu dute. Ilunabareko triki-poteoak irekiko du egitaraua. Gero, afari-luntxa izanen da Gaztetxean, eta ondoren, ETBko Mihiluze programan oinarritutako lehiaketa jokatuko da afaltiarren artean. Ideia, lana eta finantziazio guztia Gaztetxearena da.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

### Beste bi txapel

Zizur Nagusiko Pilota Txapelketatik beste bi txapel etorri dira herrira. Finalak martxoaren 27an jokatu ziren eta 1999 urtekoen artean, Iker Salaberriak 16-4 irabazi zion Alberdi azpeitiarrari. 2000koetan, berri, Antton Apezetxeak 16-5 irabazi zion Oberenako Matari. Gainera, Salaberriak Frontoi Ttikiko promesa onenaren saria jaso zuen. Bejondaiela!

Eskalerak igotzea... ez da azpapel plataformak igogailu bereziak aulkik bereziak...

**Behetik**

Aforga-txiki, 14 - T. 943 368 781 - 671 073 888  
www.behetik.com



## ADMINISTRAZIOA ETXETIK BERTATIK

Administrazio elektronikoak aukera ematen dizu Nafarroako Gobernuarekin 500 bat kudeaketa eta izapide aise eta berehala egiteko. Etxetik mugitu gabe, eroso-eroso, zeure ordenagailutik [www.navarra.es](http://www.navarra.es) guneko Zerbitzuak atalean sartuz

2012 ZUREN BAGOAZ AURREA



[www.navarra.es](http://www.navarra.es)

## LEITZA

KIROLA → KORRIKA

# XXXI. herri krosa apirilaren 24an egingen da

Izena egun berean edo aurretik Internetez eman daiteke

## TTIPI-TTAPA

Aurrera Kirol Elkarteak antolatzen duen eta 30 ediziotik gora dituen herri krosa apirilaren 24an jokatu da. Benjamin (800 metro), alebin eta infantil (2,5 kilometro), kadete (5 kilometro mutiletan eta 2,5 nesketan), junior (7,5 kilometro gizonekoetan eta 5 emakumezkoetan), senior eta beteranoen mailako (10 kilometro gizonekoek eta 5 emakumeek) lasterketak izanen dira.

Benjaminak 16:15ean hasiko dira korrika; alebinak eta infantilak 16:30ean; 17:00etan kadete eta juniorrak eta 17:30ean gainerakoak. Guztiak kale nagusitik aterako dira eta plazan amaituko dute.

## IZEN-EMATEA

Bi modu dituzte lasterkariak izena emateko. Alde batetik, egunean bertan 15:30etik 17:00etara edo bestela, [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) atarian.

Sariei dagokionez, kategoriatan hartu gabe, gizonekoetan lehenak 200 euro eskuratuko ditu, 140 euro bigarrenak eta 80 euro hirugarrenak eta 50 euro laugarrenak. Eta emakumezkoetan, 100 euro lehenbikoak, 70 euro bigarrenak, 40 euro hirugarrenak eta laugarrenak 25 euro. Horrez gain, Andres Perezen marka (29:49) hobetzen duenak 150 euro jasoko ditu.

Herritarrentzat eresari bereziak izanen dira: gizoneko seniorretan lasterketa 48 minutu baino gutxiagotan egiten duten bost laguneko taldeak axuria hartuko du opari gisa; emakumezko seniorretan 28 minutu azpitik egiten duen hiru laguneko taldeak ere bai; eta beteranoetan 50 minutu azpitik egiten duten hiru gizoneko taldeak eta 30 minutu azpitik egiten duen hiru emakumezko taldeak ere bai.

## Hondakinen zerbitzu berria

Leitza eta beste bost herritako hondakinak kudeatuko dituen Mendiak Mankomunitatea hilaren 19an hasiko da lanean eta Xabier Zabalo



ARGAZKIA ETA TESTUA: HITZA

## Elkartasuna adierazteko eguna

Euskal presoak gogoan, Elkartasun Eguna ospatu zuten Gaztetxean martxoaren 27an. Egunari hasiera bazkariarekin eman zioten eta Gaztetxean bertan 65 lagun elkartu ziren. Bazkaria herriko bertsolariek girotua izan zen eta nahiko abestu ostean, kalejiran atera eta herriko kaleak zeharkatu zituzten. Festari jarraipena, gauerdian izan zen kontzertuarekin eman zioten, Vendetta eta Memo taldeen kontzertuekin.

## Jeiki Abesbatzaren kontzertua hilaren 25ean

Sinfonietta Academica orkestrarekin ariko da

### TTIPI-TTAPA

36 urte egingen ditu kantuan aurten Jeiki Abesbatzak, baina ez dago geldirik egoteko. Joan den martxoaren 27an, esaterako, Iruñean kontzertu benefikoa eskaini zuen Sinfonietta Academica orkestrarekin batera.

Baina herrian ere eskainiko du emanaldia eta hori prestatzen ari da orain burubelarri.



Apirilaren 25ean, igandea, Sinfonietta Academica orkestrarekin da Leitzara eta, besteak beste, Haendelen obra batzuk - Antifonas - eta Schuberten meza izanen dira entzungai. 12:00etan

hasiko da emanaldia Elizan.

Astean bitan elkartzen da 50 laguneko taldea eta urte batzuek nahiko hilda egon bazen ere, azken lau urteotan indartzen ari da Jeiki abesbatza.

alkatea izanen da lehen-dakaria. Zerbitzu berriarekin, ohiko zaborraz gain, beira, papera, kartoia, plastikozko enbaseak eta

hondakin bereziak birziklatzeko aukera izanen da. Baina aldi berean, taksak igoko dira. Udaletxeko herritarrentzako bulegoa

zabalduta dute eta Amaia Sagastibeltza herritarra hor egonen da astelehenera ostiralera, asteartean izan ezik.

**ola**  
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizaturia
- Sagardotegiko menua

102 Meaka auzoa - 20304 IRUN - Tfnoa 943 623 130

gaztelu sol  
Iturgintza

kalekzioa · saneamendua · gasa

Tfnoa: 948 510 086 · 948 510 156  
Faxa: 948 610 856  
LEITZA

ttipi-ttapa

info@ttipi.net  
(0034) 948 63 54 58



PILOTA → BANAKAKO TXAPELKETAK

## Unai Onsalok eta Anartz Onalok beste txapel bana jantzi dute

Onsalok Bergaran eta Olanok Zizurren lortu dituzte garaipenak

**Juana Mari SAIZAR**

Tolosaldeko Aurrera-Saiazko pilotariak azken aldian emaitza oso onak ari dira lortzen eta horietako bat Unai Onsalok aresoarrak lortu duen txapela izan da. Soraluzeko Torneoan parte hartu du eta Bergaran jokatu zen finalean, 22-18 irabazi zion Yoldi pilotariari. Finala oso parekatua izan zen eta asko borrokatu behar izan zuten txapela jantzeko.

Anartz Olano ere txapelak jantzi iritsi da etxera, Zizur Nagusiko lau t'erdiko txapelketan irabazle atera baitzen berriro. Orain beste bi torneotan parte hartzen ari da, Tolosan eta Elgetakoan eta oraingoz dena irabazi du. Adituek diotenez, oso garapen ona izaten ari da, eta beraz, jarrai dezala horrela.

### Sinadura bilketa

Nafarroan ETB ikusten segitzeko, sinadurak eman genituen herritar batzuek orain hilabete, baina epea maiatzera luzatua denez, sinadura eman ez duten guztiek horretarako aukera izango dute udaletxean.



ARGAZKIA: JAIONE OLAZABAL

### Gazteak sagardotegian

Urteroko ohitura bihurtu denez, Pazko egunez herriko hainbat gazte sagardotegira irteera egin zuten. Autobusean egin zuten joan-etorria eta nahiz eta aurten beste urteetan baino jende gutxiago bildu, joan zirenek oso ongi pasatu zuten. Ea hurrengo urtean gehiago animatzen diren!



ARGAZKIA: IGONE GOIKOETXEA

### Oporrak patinen gainean

Aste Santuko oporraldian Kirol Mankomunitateak patinen ikastaroa jarri zuen martxan gure herrian. Ludotekako monitorea izan zen honetaz arduratu zena eta berak erakutsi zien neska-mutikoei.



**elVelocimetro.com**

Gidatzeko baimena internet bidez lortzeko lehenengo autoeskola. Zure neurira eta zauden lekuan zaudela.

[www.elvelocimetro.com](http://www.elvelocimetro.com)

- testak
- hitzegia
- bideoak
- azterketa
- liburua
- praktikoa

50€ + klase praktikoa

# BAZTAN

HERRIETAKO ESKOLAK → OSPAKIZUNAK

## Batzar Nagusiak ahobatez bat egin du Iruritako Guraso Elkartearen eskariarekin

50 bat guraso eta haur bildu dira batzar orokorrean

### TTIPI-TTAPA

Jangela nahi du Iruritako Guraso Elkartek eta helburu horrekin jo zuen apirilaren 6ko Batzar Nagusiaren bilkurara. Guraso batzuk eta 50 bat neska-mutiko sartu ziren Balleko Etxean, jangelarako balioko lukeen erabilera anitzeko bigarren gela bat egiteko eskatuz. Izan ere, dagoeneko lanak lehiaketara atera dira eta ez da aipatu gela hori aurreikusitako.

Gurasoek adierazi zuten, mahai baten inguruan jarri nahiko lukete, Nafarroako Gobernuarekin eta Udalarekin, baina adierazi zuten, «orain artio ezinezkoa izan da».

Udalari ere galdera luzatu zieten: «gustatuko litzateke jakitea Udala zertan ari den eta lruñetik ezezkia hartzen badugu, zein da bere irtenbidea?».

Batzar Nagusiak, bere aldetik, ahobatez babesa eman zion Guraso Elkartearen eskariari eta Nafarroako Gobernura igortzeko idatzi bat onartu zen. Martin Garde zinegotziak, bertzelde, Udalak Hezkuntza Departamentuarekin biltzeko asmoa duela aipatu zuen, baina oraindik ez omen dute bilerarako datarik zehaztu.

### SANZI ESKAERA AURREZ-AURRE

Martxoaren 29an Miguel Sanz Nafarroako presidenteari eskatu zioten aurrez-aurre jangela nahi dutela. Elizondoko Jorge Oteiza museo zaharberria inauguratzera etorri ziren Gobernuko ordezkariak, tartean Sanz presidentea, eta Iruritatik pasatzerakoan eskola berria eraikiko den tokian *Jangela behar dugu* aldarrikatu zuten gurasoek. «Ordaintzen duena edozein dela ere, ezin dugu gure familientzako hain garrantzitsua den zerbitzu hau galdu».



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

### Jabier Zigaren lanak hartuko dituen txokoa zabalik

Martxoaren 29an inauguratu zuten Jabier Ziga margolariaren lanak hartuko dituen Jorge Oteiza museoko txokoa. Museoa egokitzen lan batzuk egin dira eta horiek akituta, Zigaren 61 obra daude ikusgai, 47 olio-pintura, akuarela bat, lapitzez egindako 12 obra eta ikatz-marrakiz bat. Lan hauek egiteko 124.553 euroko dirulagutza eman du Nafarroako Gobernuo Kulturak eta Turismo Departamentuak eta martxoaren 29ko ekitaldian Gobernu ordezkariak izan ziren egindako lanak inauguratu zituztenak, tartean Miguel Sanz presidentea eta Juan Ramon Corpas Kultura eta Turismo kontseilaria. Horiekin batera, Virginia Aleman alkatea, Ziga Fundazioaren izenean Pello Fernandez, eta Museoaren Lagunak Elkarteko lehendakaria den Ana Mari Marin eta Zigaren alaba, Gurutze Ziga ekitaldian izan ziren. Bertzelde, museon Baztango megalitoentzako eremua ere egokitu da.



ARGAZKIAK: ONDIKOL

### Plaza, Eizagirre eta Garmendia gogoan

Lino Plaza Tuñon Lekarozen sortua zen eta joan den urteko urrian hil zen. Aitzinetik, errugbi munduan aski ezaguna izan zen, jokalaria eta entrenatzaile gisara Espainiako hamar liga irabazi baitzituen Arquitectura taldearekin eta Espainiako selekzionatzailea, epailea eta nazioarteko federatiboa izan baitzen. Kirol hau maite zutenek «Errugbiaren erregea» deitzen zioten eta oraindik ere, guziren bihotzean halaxe dela erakutsi zuten martxoaren 27ko omenaldian. Berekin batera, Baztanen errugbizaletasuna piztu zuen Peio Garmendiari eta honen koinadua zen Enrike Eizagirri ere omenaldia eskaini nahi izan zioten Baztan Errugbi Taldekoek. Honela, lore-xorta bana eskaini zioten Cristina Plaza, Lino-ren ilobari eta Esther Elizagoien, Pelloren alargunari. Gisa berean, txapela oparitu zioten Arquitectura taldekoei eta hauek, taldearen ezaugarri den larrosa eman zioten baztandarrei. Gero, partidaren txanda izan zen: beteranoak aritu ziren lehenik eta ez hain beteranoak ondotik, besta giroan jokatu ziren partida berdindu eta ikusgarrietan. Akitzeko, nola ez, Lekarozko Txokoan hirugarren denbora jokatu zen eta oraindik laugarren denbora baterako aukera ere izan zen, Pelloren etxea eta Lino Plazaren bigarren etxea zen Eskisaroi jatetxean.

**Bierresenea**  
OSTATU · JATETXEA  
Jaki tipikoak · Etxeko giroa  
Berrituz auzoa - Tfnoa: 948 582 043  
ORONOZ · MUGAIRI

**KIROLA** → NAFARROAKO HERRI KIROL JOLASAK

## Bigarren, hirugarren eta laugarren postuak eskuratu ditu Basaburuak Herri Kiroletan

Finalak martxoaren 28an jokatu zituzten

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Herri Kirol Jolasek eman dute aurtengo. Hiru mailerako txapelketak jokatu dira: kimu, haur eta kadete mailakoak eta Basaburuak hiru kategoriatan izan ditu ordezkariak, bai konbinatuetan eta bai sokatiran ere. Eta txapelik ez eskuratu arren, bere maila eman du aurten ere.

Aitzinetik jokatutako jardunaldietan hobekien moldatu zirenek martxoaren 28an jokatu zituzten finalak Arbizun. Hala, probakombinatuetan, kimu mailan bigarren gelditu zen Basaburu; haurretan laugarren

nak izan ziren eta kadeteetan hirugarren. Sokatiran, berriz, kadete mailan bigarren gelditu zen.

### Errekarekin eskubaloian aritzeko gonbitea

Eskubaloia zabaltzeko helburuarekin *Eskubaloia...zergatik?* kanpaina abiatu du Doneztebeko Erreka Kirol Elkarrekin. Doneztebeko taldeetan eskubaloian aritzeko izanen litzateke, eta interesa duen edozeini dagozuzendua. Haur, bereziki, 1996, 1997, 1998 eta 1999 urteetan jaiotako mutilei.

Bi entrenamendu eginen dituzte interesatuak biltzeko, eta horietako bat Elizondoko kiroldegian. Baztango jendeari zuzendua izanen da eta apirilaren 20rako egin dute hitzordua, 18:00etan.



ARGAZKIA: ASUN

Basaburu taldearekin aritu diren neska-mutikoak eta euren entrenatzaileak.



ARGAZKIA: LEGARRA

### Omenaldia Amaiurko Sokatira Taldeari

Munduko Sokatira Txapelketan Amaiurrek lortutako bigarren postuaren harira, Udalak omenaldia eskaini zion martxoaren 26an.

### Errugbizaleen besta larunbatean

Aitzineko alean iragarri bezala, larunbat ho-

netan, apirilak 17, eginen da Larrantzarren Baztan Errugbi Taldearen urteroko besta. Aipatzekoa da, joan den

asteen afaltzeko 380 txartelak salduak zuzeldela, baina gabe gelditu direnek hor izanen dute afalondoko besta.

*Okindegia* *Jatetxea*

# Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata  
 JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)  
 Espezialitatea parrillan erretako jakietan  
 Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen erre, goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea  
 Tfnoa: 948 453 403  
 31713 ARIZKUN

Alantza berezikiak  
 Jaunartzerako opariak  
 Jacob Jensen eta  
 Danish Design erlojuak  
 Eskatu aurrekontua

## ANIMATU

*ohar dazara arthiko daz*

# URREGINE

BITXIDENDA TAILERRA

Santiago, 55 • ELIZONDO • 948 45 26 34

# ZUGARRAMURDI

IKASTAROA → AKELARRE ELKARTEAK ANTOLATUTA

## Sendabelarren inguruan ikastaroa egingen da larunbat honetan

20 lagun baino ez dira onartuko ikastaroan

### Koro eta Margari

Sendabelarrei buruzko ikastaro bat antolatu du Akelarre Elkarteak larunbat honetarako, apirilak 17. Akelarrenean emanen da, 10:30etik 14:00etara eta 15:30etik 19:00etara.

Itziar Salegik ematen du, eta sendabelarrek zer diren, nola biltzen diren eta nola gordetzen den ikasteaz gain, terapia naturalak ere ikusiko dira. Jarabeak, kremak, gorputz depuratiboak, kataplasma, hidratanteak, tinturak, antizelulitikoak eta abar nola egiten diren era-



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Duela bi urte ere egin zen sendabelarrei buruzko ikastaroa.

kutsiko da. Ikasle bakoitzak material didaktikoa eta berak egiten dituen erremedio pare bat ere jasoko ditu.

Izen-ematea telefono hauetako batean egiten ahal da: 948 599305 eta

948 599004; edo helbide elektroniko honetara idatzita: [sendabelarrek@hotmail.com](mailto:sendabelarrek@hotmail.com). Plazak 20 lagunetara mugatuak dira, eta beraz, lehenbiziko 20ak izanen dira onartuak.

Bertzalde, ikastaroaren egunean, 10 euroko ordainketa egin behar da.

Informazio gehiago web orri honetan ikusten ahal da: [www.turismozugarramurdi.com](http://www.turismozugarramurdi.com).

### FLASH

#### Zugarramurdiko sorginak narrazio lehiaketan hizpide

Logroñoeko Udalak antolatu duen XXIII. Narrazio laburren lehiaketak Zugarramurdiko sorginen kontra egindako epaiketa izanen du gai. Urterotola-tzen den sariketa da hau, eta urte bakoitzean gai desberdinak paratzen dituzte. Aurten goan, aipatu bezala, gure herrian gertatutakoak izanen dira protagonista. Idazlanak gaztelaniaz egin behar dira, gehienez zortzi orrialdekoak, eta aurkezteko epea maiatzaren 28an finituko da. Sariak pulitak dira: lehenbiziko eta bigarrenak 3.000 eta 1.000 eurokoak. Eta 500 euroko bertze lau sari ematea ere posible izanen da.

#### Mediku-kontsulta berritua zabalik

Sei hilabete pasatu ondoren, edeki da hondarrea mediku-kontsulta. Haunditze lanak zirela-eta hertsia egon da, eta irailetik hnat Urdazubira gan behar izan dugu medikura. Baina martxoaren 29an berriz edeki zituen atak. Jada ez dugu harat-hunat ibili beharko.

**BURKAITZEA**  
• ostatu  
• erretegia  
Zugarramurdiko bidex, 3 km  
948 599 280 - URDAZUBI

**Eskisaroi**  
JAUREGIA  
Jaime Urrutia  
Tfona: 948 580 013  
ELIZONDO

**Iñaki Alzueta margoak**  
Pintura dekoratiboa eta indurria • Dekorazio: etxeak, tenak, Faltak • Berridatza  
Lanetan eta berridatza lanetan • Pintura  
Hartu eta egun amaitzeko garbitzen da  
Tel.: 609 882 417 • Iru-tpi etxea - Lanibar Auzoa • 21711 URDAZUBI  
[pinturas.alzueta@yahoo.es](http://pinturas.alzueta@yahoo.es)

**Koipe eta olio bereizleen kutxatilen garbiketa**  
Sukalde industrialetako Koipe eta olio bereizleen Kutxatilen Garbiketa eta Kudeaketa **ZERBITZU INTEGRAL BERRIA** (LER 190809 hondakina). Honekin administrazioaren aurrean sukaldeko uren kudeaketa egokia frogatu ahal izango duzu eta Legea bete.

Lanaren zila erabilien kudeaketa baimendua: GNP/23/NA/2004  
Hondakin arreturatuaren gaitasuneko kudeaketa baimendua: T/153/NA/2005

**Erabilitako landare olioaren bilketa**

Tel.: 902 366 251 • [ecogras@ecogras.es](mailto:ecogras@ecogras.es) • [www.ecogras.es](http://www.ecogras.es) • Zaindu zeure ingurumen!

ELIZA → BERRITZE LANAK

## Eliza kanpotik eta barrutik berritzea milioi erdi azpitik gostako da

Kanpotik egin beharreko lanak egiten hasi dira

### Koro eta Margari

Zaharberritze lanak egiten hasi dira Elizan. Teilatua, dorrea eta kanpoko paretak eginen dira, eta argazkian ageri den bezala, andamioak jarriak dira. Honen guztiaren aurrekontua 221.697,54 eurokoa da, eta apezak erakutsi dituen kontuen arabera, Elizak gaur egun 150.628,27 euro ditu lan horiek egiteko. Beraz, falta den dirura ailegatzeko, kontu zenbaki bat ireki da herritarrek dirulaguntza eman dezaten. Hauxe da kontua: 2054 0006 11 9156806500.



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Lanak egiteko andamioak paratuak ditu Elizak.

### BARRUKALDEAN ERE BAI

Kanpokoak egin ondotik, bertze berriketa batzuk ere egin nahi dira, hauek Elizaren barneko aldean: pare-

tak pintatu, argiteria aldatu, eta presbiterioa bere aldareakin konpondu. Lan hauen aurrekontua 300.000 euro ingurukoa da.

Aipatzekoa da, laguntza haundia izan dela Elizak Udalarari olatzea, hortik 100.000 euro sartu baitira. Bertze 200.000 euro ere izatea

### DIRU BILKETA

Elizako lanek sortuko duten gastuari aurre egiteko kontu zenbakia zabaldu da.

espero da, Elizaren gibelesko aldeko lurrak saltzea lortzen bada.

### Herritarrek Berako Soinketa Egunean

Urte osoan Patxi Txokarrekin gimnasia egiten aritzen diren lau lagun Beran izan ziren lehengo astean, Arkupeak elkarteak antolatutako Soinketa Egunean parte hartzeko. Migel Migeltorena, Francisco eta Anta Menta eta Teresita Bidart izan ziren euren trebetasunak erakusten aritu renak.

edredoi fundak  
albornozak  
edredoi nordikoak  
ohje estalkiak  
mairidireak  
mantelak  
kuxinak  
toailak

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**Udaberri-udako kolekzio berria**

Tafalla, 13 • IRUÑEA 948 230 634

# TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!



**DESKONTUAK**  
**ZOKKETAK**  
**ALDIZKARIA**  
**MUSUTRUK**

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoz

- 515 ALEKO IRABAZLEAK**
- \* **TTIPI SASKIA**  
Mikel Telletxea Zabaleta | Bera
  - \* **ARTIC 2 SARRERA**  
Araceli Martin Martin | Bera
  - \* **ELKAR 2 LIBURUA**  
M<sup>a</sup> Luz Loiarde Ibarra | Elizondo
  - \* **ONIN ART KAMISETA**  
Jose Oliveira Alvarez | Bera
  - \* **KALOTXA LOTEA**  
Marian Azplazu Olaskoaga | Bera

## ZORIONAK

\* Hilabete bateko epea sariak bitzeka

# ZOKKETAK

ttipi txarteldun guzien artean zozketatuko dira sari hauek



**KAMISETA 1 ONDDO TA PUNTO**

[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



**LOTEA KALOTXA OPARIAK ETA OSAGARRIAK**



**XABI SANSEBASTIAN MUSIKA CDA ELKAR**  
[www.elkar.com](http://www.elkar.com)



**LOTEA MARTIKO**

[www.martiko.com](http://www.martiko.com)



**2 LIBURU TTARTALO**

[www.ttarttalo.com](http://www.ttarttalo.com)

**2 SARRERA CAMELOT PARK**



## DESKONTUAK

Denda hauetan eta aunitz gehiagotan!  
ERABILI ZURE TXARTELA!

**FANTXIKE**

%10, 300tik gorako gastuan

**GOIKO**

%10 kopla digitaletan

**intzuri**

%10eko deskontua

**IPARLA kirolak**

%8, 300tik gorako gastuan

**IPINGI**

%10, 300tik gorako gastuan

# BAIGORRI

OSPAKIZUNAK → KULTURA

## Nafarroaren Eguna apirilaren 25ean eginen da Baigorriin

Basaizea Kultur Batasunak hainbat ekitaldi antolatu ditu

### TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, apirilko azken igandean eginen da Nafarroaren Eguna, apirilaren 25ean, Baigorriin. Nafarren arteko lokarriak indartzeko helburuarekin, 1978an egin zen besta egun hau lehenbizikoz Baigorri eta inguruko gazteek bultzatuta, eta azken 31 urteotan Basaizea Kultur Batasuna da egun honen antolatzaile arduratu dena.

Basaizea elkarteak ekitaldiak urte osoan antolatzen baditu ere, Nafarroaren Eguna da, du-darik gabe, jendetsuena, eta azken urteotan,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Jendetza bilduko da urtero bezala apirilko azkeneko igandean Baigorriko karraketan.

euskaldun aunitzen hitzordu garrantzitsua. Hala, goizean goizetik hasita ekitaldi andana izanen da Baigorriin: bertsolariak, dantzariak, joaldunak, gaiterak, trikitilariak, dantzal-

diak...

### KULTUR ASTEA

Egun haundiaren aitzinetik, bertze zenbait ekitaldi ere eginen dira Baigorriko Kultur Astearen harira.

Larunbat honetan, apirilak 17a, irri gaualdia eginen da Baigorri Bil Etxea gelan, 21:00-etan hasita. Kike Amornarriz eta Asisko, Unai Iturriaga, Ander Lipus, Joseba Tapia, Uxue Al-

### DATUA

# 32.

EDIZIOA  
izanen du aurtengoa  
Nafarroaren Egunak.

berdi, Supazter xokotik zuzenean eta Ruben izanen dira.

Igandean, berriz, Irulegin Jarapea ostatuan 17:00etatik aitzinera, Joseba Tapiaren diska berriaren aurkezpena izanen da.

Apirilaren 21ean Biddarrain haurren eguna izanen da eta apirilaren 24an Baigorriko elizan musikaldia. Biel Majoral eta Pep Gimeno *Botifarra* ariko dira kantuan.



**SOULE**  
hileta artea  
Tfnoa: 948 453 444  
Mug.: 629 659 583  
ARIZKUN

**VENTA PEIO**

<b>Bera (Administratiboa)</b> 71700 BERNA Tel: 948 625 130 Fax: 948 625 127	<b>Bardaxarrea</b> 51712 URDAGA Tel: 948 539 389 Fax: 948 539 440	<b>Barrio</b> 51700 BERNA Tel: 948 620 719 Fax: 948 620 306	<b>Lanabete</b> 51040 ELIZONDO Tel: 948 770 804 Fax: 948 770 185
--	--	--	---

**ANTXITONEA**  
Trinketea

Jatetxea - Ostaturia  
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte karririk  
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

# SENPERE

LITERATURA → 27. EDIZIOA

## Herritar andanak parte hartu du Sarako Idazleen biltzarrean

Lassèguek eta Zamorak liburu bana aurkeztu dute

**Franck DOLOSOR**

Ohiturari jarraikiz, milaka lagun, hauen artean senpentera aintz, Sararatz giren Bazko Astelehenez Idazleen Biltzarrean parte hartzerat. Batzuek liburuak erosteko eta bertze batzuek beren idazlanak presentatzeko.

Aguxtina Lassèguek, erraterako, *Holandarra eta Sarako sorginak* eleberriaren euskarazko itzulpena agertu zuen. Halere, Idazleen Biltzarra huts egin duenak eta liburuan idazlearen sinadura nahi duenak LekuOna liburu eta egunkari saltegitan gan beharko du maiatzaren 8an. Egun hortan, solas egiten ahal-ko da Aguxtinarekin.

**'SARA ETXEZ-ETXE'**

Arrigaraia, Kaikuenea,

Sagardiburua edo Zimizaena... Etxe izen hauek ederrak bezain aberatsak dira, eta horiek oro bildu ditu *Sara etxez etxe* bere azken liburuan Auxtin Zamora herritarak. Orenak eta orenak eman ditu lan hau egiteko Altziburukoak milaka jendekin mintzatu behar izan baitu. Izen hauen bilketa egitea ezinbertzekoa iduritzen zitzaion azken 50 urteetan inarrosaldi gaitza jasan baitute gure herriek eta beraz, baitezpadakoa zen lekukotasunak betiko finkatzea.

Etxeen izenez gain, hauen kokapen geografikoa ere irakur daiteke GPS batekin atzemateko gisan edo Interneten *Google Earth* programarekin etxetik beretik Sarako herria zerutik bisitatzeke. Gaurko egunean, gero eta etxe gehiagok ez dute izenik baina etxe hauen jabe gehienek lehenbailehen izen bat asmatuko dutela hitz eman diote Auxtini. Liburuak in-



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Aguxtina Lassèguek itzulpen berria plazaratu zuen bitartean, Auxtin Zamora olerkariak *Sara etxez etxe* presentatu duen Sarako Idazleen Biltzarrean.

teres handia sortu du: geografikoa, historikoa, eta hizkuntza mailakoa, Euskal Herriko etxeen izenek altxor aintz atxikitzen baitute izenen baitan. Saran etxez etxe ibili ondoren, orain herrian ibili behar luke, agian ba...

### Bigarren eskuko gaien saltoki berria

Garapen jasagarria aipatzea ongi da. Egia bihurtzea ez ote da hobeki? Ideia hori gogoan, bigarren eskuko gaien saltokia ideki du berriki Laminak etxean, Karrika Nagusiaren ondoan, Sandrine Soudre, sortzez Sistiatue, Senperen bizi den saratarak. Saltokia idekitzeko bere lanpostua sortu du *autoentrepreneur* gisa, eta orain denetik

salzten du: baxera, apaingarriak, bideo jokoak... Nornahik uzten ahal ditu bere gauzak denda hortan. Zerbait salduko delarik, diruaren erdia jabearentzat izanen da eta bertze erdia Sandrine merkatarri berrirentzat.

### ETBren aldeko sinadura bilketa

Goazen aitzina taldeak kasik 5 000 sinadura bildu ditu hilabete batez EITBk adar bat Baionan atxik dezan galdetzeko. Senperen ere ikusle aintzek sinatu dute petizioa EITBk egitura iraunkorra segurtu dezan eta kazetariaren lanpostuak atxik ditzan. Aipagarria da kolore guzietako herritarrek eta hautetsiek sinatu dutela. Goazen aitzinaren

ustez, horrek ongi erakusten du egiazko zerbitzu publikoa eskaini duela urteetan EITBk eta jendea horri biziki atxikia dela. EITBko zuzendaritzak dio Iparraldeko bortz berrikeriak berriz hartuko dituela enpresa berria atzemanen duelarik Baionako lanak segurtatzeko. Momentuan, kazetari hauek langabezian daude. Dena «inprobisatzea» leporatu dio Goazen Aintzina taldeak EITBri.

Ondoko egunetan, kolektiboko kideek bilkurak egingen dituzte Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoko eta EITBko arduradunekin. Mezuak igortzeko: [aintzinaeitb@gmail.com](mailto:aintzinaeitb@gmail.com). Informazio gehiago: <http://bidegurutzean.unblog.fr/>

**BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak**

LARRALDEA      LINDDURRENBORDA

**LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA**

Dolarea Txotx denboraldia irekia Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA      LINDDURRENBORDA  
 Tolosa auzoa - LEKARROT      Tolosa auzoa - LESAKA  
 948 402121 - 629 414317      948 402122

HERRIKO ETXEN  
 EDXNTEGIA  
 CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0539542519  
 Maitzen eta Wintzen  
 SARA

**ttipi-ttapa**

info@ttipi.net  
 (0034) 948 63 54 58

**MONTXO OSTATUA**

Dantzarineatik 2 km-tara

**TABAKO-DENDA ANZAN-BORDA - VRDAZYBI**

Egunero irekia 10:30etik 02:30era



SARAKO HISTORIA → ELKARTE BERRIA

## Sarako Ondarea elkarteak sortu dute hainbat herritarrek

Arbasoen aberastasunak biltzea da helburua

### Xan HARRIAGUE

Elkarte bat sortu berri da egun hauetan gure herrian. Sarako Ondarea da eta izenak dioen bezala, herriko arbasoen utzitako aberastasunak biltzeko eta atxikitzeko helburua du. Has-tapen batean, ahozko lekukotasunak, argazkiak eta objektuak biltzen ariko da gerora begira horiekin hainbat lan eskaini ahal izateko. Dozena erdi bat lan ildo finkatu dituzte momentuko: laborantza munduan, desagertu diren lantegiak edo meategiak, kontra-

bandoa, gerlak, saratar ezagunak eta artistak, besteak beste. Gai horien inguruan lehengo istorioak grabatu nahi dituzte adinekoekin mintzatuz, eta bidenabar herriko euskalkia ere bilduz. Argazki zaharrak eskaneatuko dituzte, eta haien jabeek itzuliko. Lehengo tresnei dagokionez, argazkiak aterako dituzte, eta azalpenak bilduko nola funtzionatzeko zuten jakiteko. Alegia, historia oroitzeko lana egiteko gogoak du Sarako Ondareak.

### BULEGOA

Elkarteko bulegoajandak osatu dute, baina gai horietan interesatua den edozeini irekia da. Horretarako harremanetan sartu daite-



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

### Usaiako arrakasta lortu du Idazleen Biltzarra

Aro eta giro ederra izan dute aurten ere Idazleen Biltzarrean. Iaz bezainbat jende ibili zen goizetik arratsalde arte. Mila lagun izan ziren liburu eta diskoen artean ibili zirenak eta 100 bat idazlerekin solasteko aukera izan zutenak

ke Henri Errandonea elkarteko presidente izendatu berriarekin edo Fafa Agirre, Xabi Behotegi, Joxet Bergara, Philippe Gérard, Jean Lasaga, Maider Olasso, Philippe Piguet eta Jean Pouyet elkarteko kideekin.

### Errugbia

Eskasa izan da herriko basurdeen errugbi sa-soina. Asmo onekin hasi ziren, alegia, lehengo urtean bezala kalifikatzeko helburuarekin, baina ezin izan dute. Zazpi-garren postuan finitu dute lehen seiak bakarrik

sailkatzen zirelarik txapelketan aitzinera segitu ahal izateko. Guztira bederatzita partida galdu dituzte eta zazpi irabazi. Ez da hain txarra izan, baina sailkatzeko ez aski.

Hala ere, bigarren taldeak segitzen du eta urrun joateko gogoak du.



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerrek S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA

## EZKONTZAK

**Juan Tomas Juankorena Ibarra** eta **Esperanza Margarita Iparragirre Las-tiri**, Sunbillakoak, martxoaren 12an Sunbillan.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK

**Olaia Mindegia Taberna**, Beintza-Labaiengoa, apirilaren 7an.

**Julene Danboriena Ibarra**, Etxalar-koa, martxoaren 19an.

**Eneritz Iturbide Martin**, Etxalar-koa, martxoaren 20an.

**Oihan Baraibar Loiarte**, Leitzakoa, martxoaren 18an.

**Oier Rekarte Agirre**, Donamariakoa, martxoaren 26an.

**Esteban Xan Gachen**, Sarakoa, mar-txoaren 6an.

**Kattalin Maddi Gartzia Garaikoetxea**, Sarakoa, martxoaren 16an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 tele-fonora deitu beharko du.*

## HERIOTZAK

**Denise Gourdelier**, Sarakoa, otsaila-ren 18an.

**Brigitte Laborde**, Sarakoa, martxoaren 12an.

**Elisa Beola**, Sarakoa, apirilaren 2an.

**M<sup>a</sup> Isabel Asiron Irurzun**, Iruridakoa, martxoaren 23an, 69 urte.

**Antonia Azkona Landa**, Arraiozkoa, martxoaren 20an, 87 urte.

**Maria Sanzberro Galarregi**, Elizondokoa, martxoaren 27an, 85 urte.

**Francisco Javier Zubigarai Juanto-rena**, Arraiozkoa, martxoaren 28an.

**Gumersindo Oteiza Urroz**, Donama-riakoa, martxoaren 29an, 68 urte.

**Santiago Zubieta Iantzi**, Berakoa, martxoaren 30ean, 75 urte.

**Claudia de los Angeles Anes Rio**, Be-ran, apirilaren 6an, 88 urte.

**Florentino Goia Zoziaia**, Igantzikoa, apirilaren 7an, 78 urte.



**Jose M<sup>a</sup>  
BALEZTENA MONACO**  
Leitza, 2009ko apirilaren 29an  
**I. URTEURRENA**

*Beti irrifarrea zenuen lagunmin gauza denen gaineratik aitzinerat ekin bizitzari helduaz gogo guziekin indar hau utzi duzu betiko gurekin maite izan zaitugun familiarekin.*

**ISABEL EMAZTEA, OLAIA ETA EGOITZ SEME-ALABAK,  
AMA, ANAI-ARREBAK ETA ILOBAK**



**Maria  
TELLETXEA LARRETXEA**  
Igantzín, 2010eko martxoaren 17an, 77 urterekin

*Lore bat bezala joan zara udaberria heltzean Gure bihotzean izango zara bizí garen artean.*

**ZURE FAMILIA**

**Rekordatorioak egiten ditugu**



*Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua*

**KULTURKARI**

Andutzeta 12, Etxalar  
Tfnoa: 948 63 54 58

AIZKORA → HERIOTZA

## Mendizabalen ustekabeko heriotzak hunkituta utzi du herri kirol mundua

Leitzako eliza  
ttiki gelditu zen  
hileta  
elizkizunean

harriekin moldatu zen hobekien. Adunan jaio arren, Leitzan ere bizi-tu zen hainbat urtez eta orain Urdiainen bizi zen 63 urteko aizkolaria.

Martxoaren 28an eman zituen bere azken aizkora kolpeak. Urteak ziren plazetatik erretiratu zela, baina egun horretan, ikusmin handia piztua zuen apustua jokatzekoa zen Joxemari Olasagasti igeldoarraren aurka, Tolosako zezen-plazan. Kanaiko lau enbor erdibitu behar zituzten, zutika. Bakoitzak 6.000 euro paratuak zituen jokoan, eta



ARGAZKIA: HITZA

Joxemari Mendizabal Tolosan Olasagastiren kontra apustua jokatzen ari zenean.

### TTIPI-TTAPA | LEITZA

Herri kirolak eman duen kirolaririk haundienetakoa izan da Joxemari Mendizabal (1947, Aduna, Gipuzkoa). Aizkora hasi aitzinetik, harri-jasotzen ere aritu baitzen eta honetan ere marka haundiak egin zituen. Bera izan zen, adibidez, 16 arroako harria plazan jaso zuen lehenbizikoa. Pisu haundiko

4 minutuko aldea eman zion Olasagastik Mendizabali. Eguerdian hasi ziren apustua jokatzen, baina Mendizabalek ez zuen bere lana amaitu: ondoezik sentitu, eta hirugarren enborrean ez zegoela segitzeko moduan ikusi zuen. «Tripan topea» jarri zitzaioela erranez apustua bertan behera uztea erabaki zuen. Bere laguntzaileekin batera, Aierberekin eta Arria II. arekin, aldagelara joan zen, eta Olasagastik bere lanak bukatu bezain abudo plazaratu zen igeldoarra zoriontzera.

Medikuek badaezpada erietxera joateko aholkatu zioten, baina ondoezari buelta emanen ziola eta bazkaltzera joatea erabaki zuen. Abiatu ziren autoan, baina han gelditu zen. Larrialdi zerbitzuek artatu zuten, baina ezin izan zuten suspertu. Antza, bihotzekoa izan zuen.

### AIZKOLARI HAUNDIA

Harria utzi eta berehala heldu zen aizkolaririk onenetakoa izatera, eta lehia bikainak izan zituen Mindegia eta Arria anaiekin. Halere, historiara pasatu den

apustua Miel Mindegia-  
ren aurka 1983an jokatutakoa izan da. 52 kanaerdiko eta sei kanaiko ebaki zituzten, orain arte inoiz egin den apusturik luzeena izan zen, eta Mendizabalek irabazi zuen. Lau ordu, 12 minutu eta 9 segundo behar izan zituen lanak amaitzeko, eta lau ordu, 29 minutu eta 30 segundo Mindegia.

### SAMINA HERRI KIROL MUNDUAN

Heriotzak samina eragin du herri kirol munduan. «Dena» ikusi zuen horietako bat da Donato Larretxea. Horrela gogoratu du apustuko eguna: «hirugarren enborrean zerbait larria bazela pentsatu genuen, aizkorak ihes egiten zion eta ia-ia hankari zion. Baina ez genuen horrelakorik gertatuko zenik pentsatu».

Aizkolari «haundia» zela nabarmendu digu arantzarrak: «garai hartan kontrario haundiak izan zituen, Mindegia eta Arria tartean, baina puntako aizkolaria izan zen. Gizon haundia eta indartsua zen eta korte zuzenekoa».

Apustura joan ezinik gelditu zen Miel Mindegia, bere garaian, Mendizabalen «plazako kontrario» haundienetakoa izandakoa. Baina herri-  
an larreak erre behar zirela eta ezin izan zuen joan. Etxera etorri zenean ikasi zuen gertatutakoa, irratian aditu zenean.

Mindegia-  
ren hitzetan, aizkolari «hoberen-  
hoberenetakoa» izan zen Mendizabal. Plazan aurkaria izan zuen, baina bertzela, berekin «harreman ona» zuela aipatu digu eta alde horretatik, «pena handia» hartu duela. «Nerone oraindik hor nabila mundu horretan, eta horrelako gauza bat pasatzea oso triste da aizkolari guziendako, eta adinean aurrera goazeneandako oraindik gehiago», gaineratu du. «Oraindik zerbait egiteko harra izaten dut barrenean, baina horrelako gauzak ikusita ez da animorik izaten».

Leitzan eman zioten azken agurra Adunako aizkolari haundiari, eta senide, lagun eta zale andana bildu zen San Migel elizan egindako hileta elizkizunetan.



ESALDIA

«Kontrario haundiak izan zituen, baina puntako aizkolaria zen. Gizon haundia eta indartsua zen»

Donato LARRETXEA  
Arantzako aizkolaria



ESALDIA

«Oraindik zerbait egiteko harra izaten dut barrenean, baina horrelakoak ikusita ez da animorik izaten»

Miel MINDEGIA  
Ezkurrako aizkolaria

Munduko bizikleta-gurpilik arinenak Beran egiten dira. Hala dio Michel Debien frantziarrak (Arcachon, 1959), azken bi urteetan 3C enpresaren tailerra Beran ezarri

duen MagicWheel markako gurpilen egileak: «gurpil pareak 900 gramo ditu», dio harro. Txirrindularitzari lotutako bizimodua da Debien-ena. Bere aitatxi Frantziako

Tourrean atera zen eta bera ere pistan nahiz ziklo-krosean aritutakoa da. 1979an hasi zen bizikletan egiten eta bizikletendako hobekuntzak asmatzen.

Michel DEBIEN | Bizikleta gurpiligilea Beran

# «Mundu osoko gurpilik arinenak eskuz egiten ditut»

Aitor AROTZENA | BERA

Urte hauetan hamalau patente ezberdin asmatu ditu Michel Debien-ek koadroak, gurpilak, xehetasun teknikoak, marka ezagunentzako prototipoak, baita bertze arlo batean, ardo-botilak garraiatzeko tresna ere. «1982an direkzio integratua asmatu nuen, baina 22 urteko mutil gazte bat bertzerik ez nintzen eta marka handiek ez zidaten kasurik egin, irri egin zidaten. Gaur egun, mundu osoko bizikleta guziek daukate direkzio integratua, baina ez naute inoiz ordaindu, patente bat hogeituro urterako izaten delako». Gaur egun hain zabaldua den karbono-fibra erabiltzen ere bera izan omen zen lehena, 1984an egin baitzuen lehen koadro material horrekin. Bitxikeri gisara, Munduko txirrindulari handienarentzat (2,09m) eta ttikiarenentzat (1,48m) bizikleta bana egin zuen. Arazoak ere izan ditu bere asmakizunekin: «Enpresa handiren batek nire asmakizuna nabarmen kopiatu egin du, berdin-berdin egin eta bere izenean saldu. Epaitzietara jo izan dut, baina multinazionalek abokatuentzat dirua dute eta niri bukatu egiten zait». Miarrizten lantegia zuen

Marcel Borthayre handia izan zuen irakasle. 1970. hamarkadako txirrindulari handienek berari erosten zizkieten bizikletak: Merckx, Ocaña, Anquetil, Poulidor... Bere bezeroen artean ere aski txirrindulari ezagunak dituela erran digu Debien-ek, «baina publikizitate kontratuak dituzte, Pro-Tourreko taldeek ezin dute eskulangielen izenik agertu bere bizikletetan». Halere MagicWheel izenarekin ez ezik, bertze hainbat markendako gurpilak egiten dituela aipatu digu. «Markaren pegatina jartzea aski da». Campagnolo edo Shimano bezalako markak famatuak milioika gurpil egiten dituzte, «aunitz txarrak» Debien-en usitez, baina Espainian gurpilak egiten dituzten hiru eskulangi bertzetik ez daudela aipatu digu eta Frantzia bertzetik hiru. «Mundu osoan hogeituro bai-

no guttiago izanen gara».

Bere sekretua ongi egindako eskulana dela aipatu digu Debien-ek, materialik onenak eta denbora erabiliz: «Arreta eta maitasun handiz egiten ditut gurpilak, ahalik eta lanik perfektuena osatzeko. Gehienek makinaz egiten dituzten gurpilak, nik eskuz egiten ditut. Txinako lantegi batean, ordu batez bi gurpil pare edo gehiago egiten duten artisautza tailerrak badira; nik egunean gurpil pare bat eginen dut, bi gehienez. Gehiago ezinezkoa da». Duela urte batzuk arte bizikleta oso osorik diseinatu eta egiten zituen hamabortz langileko tailerra zeukan Arcachonen. Baina duela bortz urte izan zuen bizikleta-istripu larri baten ondorioz, indarra galdu eta orain gurpiletan espezializatu da, halaberrez.

## 5 URTERAKO GARANTIA

Mundu osoan bortz urterako garantia ematen duten gurpil bakarrak bereak direla aipatu digu Michelek. «Lehen bizi osorako garantia zuten, baina bizia hain luzea da!».

**GURPIL SENDOAK**  
«Munduko erradorik garestienak montatzen ditut, bakoitzak 4 euro balio du. Sendotasuna emateko bat bertzeari soldatu egiten ditut. Hori ez du Munduan bertze inork egiten»



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Michel Debien, Berako bere tailerrean.

Bere ustez «Munduko gurpilik onenak» egiten ditu, «prezio egokian». Gurpil pareak 490 eta 1.490 euro artean saltzen du. Aunitz iruditzen zaionarentzat, gogoratu behar da 3.000 eta 4.000 euroan ere saltzen direla gamma altuko gurpil hauek:

«Hori erokeria da!», dio frantziarrak.

Berak bakarrik egiten ditu gurpilak, baina mailaguren bat lortuz gero, Berako tailerrean bizpahiru langilerendako lana jarriko lukeela uste du, gurpil gehiago egiteko aukera emanen liokeelako.

HERRI KIROLAK → NAFARROAKO FEDERAZIOA

# 172.704 euroko aurrekontua onartu du Nafarroako Herri Kirol Federazioak

Herri kirola aztertzeko liburua kaleratuko du

dago, goma eta lur gaineko sokatira jardunaldiak, bigarren mailako aizkora txapelketa eta harri-jasotze txapelketak, hain zuzen.

## TTIPI-TTAPA

Aurtengo gastu eta sarreraren aurrekontua 172.704,36 eurokoa izanen du Nafarroako Herri Kirol Federazioak. Egitasmoen artean, urtero antolatzen diren Nafarroako txapelketa, torneo eta sariak antolatzearaino gain, aurtengo dagozkion Euskal Herriko txapelketak antolatzea

2004. urtetik 2009ra hainbat modalitate buruzko liburuak argitaratu ondoren, aurtengo Herri Kirola orokortasunean aztertuko duen liburuak argitaratzeko asmoa ere badu Nafarroako Herri Kirol Federazioak.

Bertalalde, aurtengo berrikuntzen artean Internetera egindako saltoa izan da. [www.herrikirolaknafarroa.org](http://www.herrikirolaknafarroa.org) web



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Esther Iriarte narbartearrak Nafarroako eta Euskal Herriko markak hobetu zituen iaz txingekin. Argazkian, Xanta Souza lesakarraren ondoan ageri da Goizuetan, errekorra egin zuenean.

orria egin du eta txapelketetan emaitzak, argazkiak, modalitate bakoitzari buruzko xehetasunak eta azken orduko berriak biltzen ditu.

## IAZKO BALORAZIOA

Joan den urtean, Nafarroako Herri Kirol Federazioan federatutako 451 kirolari aritu ziren lehiatzen, helduetan 254 lizentzia eta Nafarroako Herri Ki-

rol Jolasetan, berriz, 197. Federazioak antolatutako ekitaldi eta txapelketen xehetasunak eta emaitzak jakitera eman ziren.

Aipatzekoa da Nafarroako borts errekor berri ezarri zirela 2009an: Josetxo Barberena eta Iñaki Barberena anaiek arpanean, Joakin Aioroa iturendarrak ingude altzatzen (18 kiloko ingu-

deari 94 altxaldi minutu terdian); Unai Bertiz sunbildarrak harri-jasotzen (100 kiloko zilindroari 34 altxaldi bi minututan); Maika Ariztegi iturendarrak koxkor biltzen (7:23) eta Esther Iriarte narbartearrak 25na kiloko txingak eramaten (42 plaza). Bi emakumeen kasuan, Nafarroako errekorra ez ezik, Euskal Herriko marka berria ere lortu dute.

MENDIA → LASTERKETA

# Marka eginez, Fernando Etxegaraik irabazi du Sara Korrika Trail lasterketa

Manttaleko Iñigo Lasaga 3. eta Patxi Iratzoki 5. izan dira

## TTIPI-TTAPA | SARA

Sara Korrika Trail Lasterketa egin zen martxoaren 28an eta Oargi Mendi Taldean ari den Fernando Etxegaraik beratarra ez zuen hutsik egin. Berriz ere 25 kilometroko proba irabazi ez ezik, marka berria ezarri zuen, 01:57:29ko denbora-

rekin. Goierrri Garaia Mendi Lasterketa taldeko Juanjo Igartzabalek ere bi ordu azpitik egin eta bigarren gelditu zen (01:58:40). Hirugarren koxka Manttaleko Iñigo Lasaga etxalartarrarentzat izan zen (02:01:22). Aipatzekoa, halaber, Manttaleko Patxi Iratzoki igantziarraren bosgarren postua (02:05:19).

500 korrikalari inguru atera ziren proba egitera eta 454 helmugaratu ziren Sarako plazaratu, tartean eskualdeko hainbat.



ARGAZKIA: WWW.SARAKORRIKA.COM

Fernando Etxegaraik maldan goiti duela bi urteko edizioan.

## ESKUALDEKOAK

1. F. ETXEGARAI (Bera)	85. I. ZUBIETA (Bera)
3. I. LASAGA (Etxalar)	89. I. LARRAÑAGA (Bera)
5. P. IRATZOKI (Igantzi)	95. J. ARAKUES (Manttale)
31. P. VACQUIE (Sara)	115. B. SEIN (Senpere)
45. J. OTXOTeko (Lesaka)	118. P. SOUDRE (Senpere)
73. J. L. IRATZOKI (Bera)	133. O. PEREZ (Bera)
77. P. ITURRIA (Senpere)	149. HAROÇARENE (Senp.)
	166. A. MENDIBURE (Senp.)
	180. IRURETAGOiena (Senp.)
	188. X. DENDARIETA (Erratzu)
	204. T. AIBAR (SPUC)
	282. X. IANTZI (Lesaka)
	287. T. JAUREGIBERRI (Senp.)
	314. J. B. LASTRA (Senpere)
	315. V. LAMOTHE (Senpere)
	319. B. JORAJURIA (Senp.)
	320. A. ARNAL (Senpere)
	330. J. B. FAGOGA (Sara)
	347. P. EZPONDA (Senpere)
	360. I. NOBLIA (Senpere)
	382. A. AZARETE (Senpere)
	402. C. GAITTE (Sara)
	408. E. CARRERA (Senpere)
	415. M. C. JORAJURIA (Senp.)
	416. IRUBETAGOiena (Senp.)
	433. B. HIRIART (Sara)
	436. X. ZUNDA (Sara)
	448. N. LARRONDE (Sara)

## apirilak 15 - 28

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58**Erakusketak**

IRURITA | 2010.04.08 / 05.23

**Martin Zalbaren argazkiak ikusgai Olari jatetxean**

Bardeetan gaez ateratako 24 argazki biltzen ditu Martin Zalba Ibañezen *Fotografías nocturnas de las Bardenas* erakusketak Iruritako Olarin.

**Ospakizunak**

BAIGORRI | 2010.04.25

**Nafarroaren Eguna antolatu du Basaizea Kultur Batasunak**

Apirileko azken igandea hitzordu handia izanen da Baigorriin. Nafarroaren Egunaren aitzinetik, ekitaldiz betetako Kultur Astea antolatu du Basaizeak.

**Antzerkia**

BERA | 2010.04.17

**'Aitarekin bidaia' antzezlan Hika Teatroaren eskutik**

Jose Ramon Soroiz, Joseba Apaolaza eta Jabier Muguruzak taularatzen duten antzezlan ikusgai izanen da Kultur Etxean 22:00etan.

**Apirilaren 17an** bertso saioa antolatu du Bortzirietako bertso eskolak, Lesakako Udalaren laguntzaz, 17:30ean Zahar Etxean.

**Kontzertuak**

BERA

**Musika Eskolaren 30. urteurrena**

**Apirilaren 24an** Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolaren XXX. urteurrenaren ospakizuna egingen da. Kultur Etxean, 20:30ean kontzertua eskainiko dute Berako Abesbatzak eta txistulariek.

LEITZA

**Jeiki abesbatza eta Sinfonietta Academica**

**Apirilaren 25ean** emanaldia eskainiko dute Jeiki Abesbatzak eta Sinfonietta Academica 12:00etan Elizan.

**Tailerrak**

ELIZONDO

**Pintura tailerra**

**Urtarrietik ekaina arte** pintura tailerra Arizkunenea Kultur Etxean (17:00- 21:00). Apuntatzeko 609 329618 telefonora deitu.

**Lehiaketak**

BERA

**Baztan-Bidasoako XXIII. bertso-paper lehiaketa**

**Maiatzaren 14a arte** aurkezten ahal dira lanak Berako Kultur Etxean.

**Ospakizunak**

BAIGORRI

**Nafarroaren Eguna**

**Apirilaren 25ean** Nafarroaren Eguna antolatu du 31. aldiz Basaizea Kultur Batasunak.

**Erakusketak**

IRURITA

**Martin Zalbaren argazkiak Olarin**

**Maiatzaren 23ra arte** ikusgai izanen da Olari jatetxean Martin Zalbaren *Fotografías nocturnas de las Bardenas* argazki erakusketak ikusgai izanen da. Asteartetik igandera, ostatua irekia dagoen orduategian.

URDAZUBI

**Euskal pinturaren 50 urte erakusketa**

**2011ko urtarrilaren 2a arte** ikusgai izanen da Urdazubiko monastegiko klastroan gaur egungo euskal margolari eta eskultore garrantzitsuenen 300 artelan. Asteazketatik ortziralerara 14:00etatik 18:30era. Larunbat, igande, besta eta opor egunetan 11:00etatik 19:00etara.

**Bideoak**

LESAKA

**'Negua ospatuz' dokumentala**

**Apirilaren 15ean** Eusko Ikaskuntzak presta-

tutako *Negua ospatuz* dokumentala ikusgai izanen da Antoiu 27ko udal aretoan, 19:00etan hasita.

**Jardunaldiak**

LESAKA

**IV. Elbarritasuna Jardunaldiak**

**Apirilaren 19an** IV. Elbarritasun Jardunaldiak antolatu dituzte Osasun Zentroak, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Anfas eta ASPACEK, 17:00etatik aitzinera.

**Antzerkiak**

BERA

**Hika Teatroaren 'Aitarekin bidaian'**

**Apirilaren 17an** Hika Teatroaren *Aitarekin bidaia* antzezlan ikusgai 22:00etan Kultur Etxean. Sarreak 8 eurotan salgai 21:00etatik aitzinera.

**Olerki errezitala ANASAPSen eskutik**

**Apirilaren 22an** Anasaps elkarteak antolatutako olerki errezitala

Musika Eskolako erabilera anitzeko aretoan, 17:30ean.

LESAKA

**'Tormesko Lazaro Txikia' liburutegian**

**Apirilaren 23an** *Tormesko Lazaro Txikia* antzezlan ikusgai 18:00etan liburutegian.

**Bertsoak**

LESAKA

**Bertso saioa Andra Mari egoitzan**

## PROPOSAMENA

LESAKA

**Gazte Eguna ospatuko da apirilaren 17an**

Larunbat honetan, egun osorako egitarau zabala prestatu du Lesakako Gazte Asanbladak, Gazte Egunaren baitan: diana, gosaria, bisita historikoa herrian barna, paella txapelketa, bertso bazkaria, jokoak, poteo musikatu... Eguna borobiltzeko kontzertua eskainiko dute Vendetta (argazkian), Gozategi, Etnia eta Xutik taldeek. Bazkarirako nahiz kontzerturako txartelak 5 eurotan salduko dira.



**BERA**

**Kultur Etxearen inaugurazioa**

**Apirilaren 16an** egin berri zaizkion moldaketen ondotik, ofizialki inauguratuko da Kultur Etxea.

**LESAKA**

**Gazte Egunean hainbat ekitaldi**

**Apirilaren 17an** Gazte Eguna antolatu du Lesakako Gazte Asanbladak. Egun osoko egitarauari, kontzertuak emanen dio akabaila. Xehetasunak 13. orrialdean.

**Dantzari ttikiak Tanttirudantzan**

**Apirilaren 25ean** Tanttirudantza antolatu du Tanttirumairu euskal folklore taldeak, Udalaren laguntzaz. Goizean, dantzari ttikiak karrizak karrizka ibiliko dira eta 13:00etan saioa eskainiko dute plazan. 17:30ean, Potxin eta Patxin pailazoak.

**Mendi ateraldiak**

**BAZTAN**

**Baztango Mendigoizaleak**

**Apirilaren 18an** Unbotora ateraldia antolatu dute.

**Apirilaren 25ean** Bai-gorriko Nafarroaren Egunera ateraldia antolatu dute.

**BERA**


**Larun Ttikiren ateraldia**

**Apirilaren 25ean** Aiako Harrietarat denboraldiko azken ateraldia antolatu dute, 09:30ean lamo-teneatik.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

**ENTRETENIMENDURAKO GAIAK**

**Liburua**




Galerna

**IRATXE ESNAOLA**

Elkar, 2010

**A**buztuko azken eguna da itsasertzeko hiri turistiko batean; beroa jasanezina da, eta galerna datorrela antzematen da. Giro sargori horretan lau pertsonaia: Nora eta Sebastian Bechener, batetik, adin ertaineko turista bikotea, bata besteaz asper- tuak eta sentsazio berrien bila, zer nahi duten argi ez badakite ere; hoteleko zuzendaria eta bere alaba nerabea, bestetik, nora ezeko uharte banatan sartuak, ametsaren eta errealtatearen arteko arrakalan eroriak. Lauren arteko harreman sare bat hedatuz doa, gero eta nahasiagoa, guztiak ere korapilatuko dituen. Erritmoaren erabilera zehatzez eta tentsioari une oro eutsiz, sentimenduen biluzte-ari- keta bikaina egin du egileak Augustin Zubikarai no- bela labor saria irabazi duen lan honetan. Erro- mantizismoaren antipodetan, pertsonaiekiko dis- tantzia nabarmen uzten duen idazkera hotz eta zo- rrotz baten bidez, opera prima batean harrigarria den trebezia erakusten digu Iratxe Esnaolak, eta bihotzaren barrunbeen ezagutza sakona.

**Musika**



On Benito II

**ON BENITO**

www-myspace.com/ onbenito

**H**ona hemen Joseba Iratzoki musikariaren eta Berako Borrokan taldeko Mikel Lertxundi ba- teria jotzailearen On Benito taldearen bigarren emai- tza, beraien alderik burrunbatsuena eta arrisku- tsuena erakutsiz. Berako Mik eskudioan grabatu dute eta Maikel izan da grabaketa lanetan. Bert- zalde, taldekide berri moduan, Borrokan taldeko bertze partaide bat ere aritu da, Ibai Gogortza. Be- ra izan da saxo giroak jo dituen eta, bereziki, kan- tuen nahasketei txinpartak ateratzea lortu duena. Zortzi zartako pozoitsu aurkituko dituzu bertan, eta lehenbiziko disko hartako rockabilly-blues zikin- aren kirrinkak, rock gordin eta espermentazioaren planetan hegaka somatuko dituzu oraingoan; Cap- tain Beefheart, Tom Waits, Black Keys, Heavy Trash, Shellac, eta Joseba Iratzoki bera elkartzan diren galaxian, Joseba Sarrionaindia, Dani Iratzoki, Be- ñardo Goietxe, Gotzon Garate eta Mikel Lasaren hitzak bizitasunez eta errabiaz kantatuz.

**Internet**



Auñamendi eusko entziklopedia sarean

**euskoentziklopedia.org**

**A**uñamendi Eusko Entziklopedia, Euskal Herri- ko tradizio, gaurkotasun eta geroaren arteko zubi-lana betetzea duen egitasmoa da. Egitasmoa, bai, baina errealtatea ere bada eskaintzen dituen 150.000 artikulua edo ahotsen eskutik. Jakintza- eduki horien artean, iraganeko hainbat erreferente zein gaurko gizartearen premiak asetzea bilatzen duten eduki berriak aurki daitezke, horiek guztiak kalitate, berrikuntza, pluraltasun, irekitasun eta elea- nitztasunaren irizpideek markatzen duten ipar- rantz abiatuta. [www.euskomedia.org/aunamendi](http://www.euskomedia.org/aunamendi) klikatuz ere sartzen da entziklopedian eta sarrera- ko orrian, Aipagarrienak atalekin batera, Antropo- logia, Zinea, Zuzenbidea, Musika, Arte, Literatu- ra, Politika, Soziolinguistika, Ekonomia, Teknolo- gia, Historia eta Medikuntza arloak ageri dira, bi- laketa zehazteko.

**Nire aukera**



**Mirentxu GOIENETXE**  
Amairuko aktorea

**Astia ez dut izaten soberan, baina denetarik egitea gustatzen zait**

**H**ainbat xaltxetako Herperrexila izan da, eta da, Mirentxu Goie- netxe. Gaur egun, Do- neztebeko Osasun Zen- troan egiten du lan, bai- na azken aldiak aktore lanean ere somatu du- gu. Bere denborapasak aukeratzeko orduan, hainbat aldaketa izan ditu, «ez naiz batere konstantea eta asper- tzen naiz: eskulanak gustatu zaizkit, margo- tzea, dantza, aerobic egitea, mendira gatea... orain antzerkia egiten dut, siesta eder bat botatzea gustatzen zait, kontzertuak aditzea, antzerkia ikustea...». Aktore lana ere gusta- tzen zaio, «baina *hobby* gisara, horretarako de- dikatzeke aunitz gehia- go prestatu beharko nu- ke. Arras esperientzia polita izan da, baina ho- rretatik bizitzea zaila da». Bidaia- tzea gusta- tzen zaio eta orain hiru urte Argentinara eginda- ko bidaia du gogoan, «hango jendearekin aunitz disfrutatu nuen». Txilera gatea gusta- tuko litzaiok, «han jen- dakiak baititut». Hon- dartz eta eguzkia aunitz gustatzen zaizkio, «energia hartzeko».

**ETXEBIZITZAK**  
salgai

**BERA.** Pisua salgai. 3 logela, jantoki osatua eta sukaldia balkoiarekin. 2 logelek ere balkoia dute. Gasa eta berokuntza zentrala. ☎948 631381/697 436845/ elvetearra@aoi.com.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI**

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatua bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581 459  
anzabal@anzabal.com

**BERA.** 80 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela eta trastelekua. Berogailua. Dena berritua. Aparkaleku pribatua. ☎657 715243 / 657 799953.

**DONEZTEBE.** Zazpigarutze plazan 115 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela eta trastelekua. Eguzkitsua eta estreina-tu gabea. ☎630 948271.

**IGANTZI.** Zaharberitutako pisua salgai Latsaga karrikan (22, 1. ezker-rra). 3 logeal bikoitz, sukaldia, bainugela... Gela guztiek kanpora ematen dute. Bista ederrak. Berogailua eta garajea. Prezioa: 156.265 euro. ☎948 259039.

**LEITZA.** Herri erdian zaharberitutako 110 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 4 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela eta trastelekua. Berogailu zentrala eta igogailuarekin. ☎629 229449.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttiipi.net edo www.ttiipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

**IRUN.** Hiri erdian, Colon aparkalekutik hurbil, etxebizitza salgai. 2 logela, egongela eta sukaldia eta bainugela hornituak. Igogailu berriarekin eta berogailuarekin. ☎637 559152.

**LEITZA.** 83 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Eguzkitsua. Negroziagarria. ☎948 625212/ 652 730155.

**LESAKA.** Etxebizitza bifamiliarra salgai. ☎609 477277/ 618 188300.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan eman

**ELGORRIAGA.** Etxebizitza errentan emateko, inguruko jendearentzat. Txakurrik ez. ☎630 822018.

**DONEZTEBE.** Herri erdian pisua errentan emateko. 3 logela, 2 bainugela, jantoki-egongela eta sukaldia haundia. Ge-

la guztiak kanpora begi-  
ra. ☎699 798207.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan hartu

**ETXALAR.** Pisua errentan hartuko nuke. ☎661 277943.

**GARAJEAK/LOKALAK**  
errentan eman

**IGANTZI.** Lokal komertziala errentan edo traspasoan emateko. Estetika zentrua edo ile-apaindegirako aproposa. ☎663 881813.

**LANA**  
eskariak

**Gizon gaztea** edozein lanetan aritzeko prest. Kamioi gida-baimenarekin. ☎615 955694.

**LESAKA.** Emakume bat edozein lanetan ariko litzateke. Sukaldari laguntzaile lanean, adinekoak

zaintzen, etxeak garbitzen, zerbitzatzen eta lore-dendan esperientziaduna. ☎671 818743.

**LANA**

## eskaintzak

**DONEZTEBE.** Ostalaritzan lan egiteko jendea behar da. ☎948 451660.

**ELGORRIAGA.** Esperientziadun zerbitzaria behar da noizbehinka lan egiteko. Curriculumak bidali: reservas@balneario-elgorriaga.com.

**ZERBITZUAK**  
zurginak**MOTORRAK**  
salgai

**Mitsubishi Montero DID** salgai. 2004koa eta gris zilar kolorekoa. 94.000 kilometro. Egoera onean. ☎616 059612.

**BMW 320-D** autoa salgai. oso egoera onean. ☎649 753484.

**MOTORRAK**  
tailerrak**MENDAUR MOTOR**  
948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**

**ANIMALIAK**  
salerosketak

**BERA.** Ahuntz aker gaztea salgai. ☎600 527494.

**5 behi eta poni bat** salgai. ☎680 265671.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA  
(martxoaren 19tik 26ra bitarteko prezioak)



**Zerrikumea**  
(19 kilo): 52,00 € (=)

**Zerri gizena**  
1,070 € kilo. (-0,020)

**Zerramak:**  
0,380€ Kg/bizirik. (-0,020)



**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 3,86 (=)  
**1.koa** 3,56 (=)  
**2.koa** 3,16 (=)

**Urruxak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 3,96 (=)  
**1.koa** 3,66 (=)  
**2.koa** 2,99 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 130,00 (=)  
idixkoak 210,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 108,00 (=)  
idixkoak 130,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 2,70/2,80  
Zaldi-behorrak: 1,55/1,69  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 5,70/6,40  
8-10 kilokoak: 4,30/4,70



**Ahari** mutur zuri eta mutur motza salgai. 2 urte ditu. ☎948 634057.

2 urteko **ahari mutur gorria** salgai. ☎606 645479.

**DENETARIK**  
galdu-aurkituak

**Remolke baten hanka edo katua** galdu nuen martxoaren 20an Beran edo Beratik Donez-teberako bidean. ☎628 123026.

**DENETARIK**  
salerosketak

Behien **txuleta zintak** eta **solomilloak** salgai. Oso haragi ona eta prezio onean. ☎659 751411.

**Ardien eskubideak** (*pago único*) erosiko nituzke. ☎948 450659.

Bigarren eskuko **inbrenaderoa** erosiko nuke. ☎679 609615.

**Belarra paketatzeko** salgai, presiozkoa. Belarra **biltzeko** makina eta

belarrari **buelta emateko** makina ere salgai, Khun markakoak. ☎649 575549.

**Sukalde ekonomika kalfektora** salgai, egoera onean. ☎620 520010.



**DONEZTEBEKO AVIA GASOLINDEGIA**

**ETA GAINERA**  
100 litro gainera  
100 €-an  
10 txartel apart

**Valentziako Sari Handirako**  
sarrerak zozketatzen ditugu

**AVIA** Leitzako Errepidea  
**DONEZTEBE**  
T 948 451 679  
www.doneztebe.com

2010ean ere...

**Ttipi-Ttapa fundazioak zure laguntza behar du!**



Zure laguntza eskertzeko, boltsa eder hau opari izanen duzu!



geure bezeroek aukeratutako proiektua **can**

Eginzazu  
**TTIPI-TTAPA**ren alde  
proiektu zenbakia:

**15.996**

Eska ezazu TTIPI-TTAPAren proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra 2010eko abenduaren 31a baino lehen.

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



Elizondoko **JULEN JUANIKOTENA BORDAK** 2 urte beteko ditu apirilaren 20-an. Zorionak osabak, izebak eta berexiki amatxi, Laura, Oier eta Ikerren partetik.



**CASTORA AGESTA BARANDIARAN**ek 99 urte beteko ditu apirilaren 17an. Zorionak familia guztia-  
ren partetik.



**ANE PACHECO SAN JULIAN**. Zorionak Ane!!! Ongi pasa zure eguna. Ainara, attatto eta amaren partetik



**ANE** eta **OLATZ**. Zorionak bikote!



**NAHIA ANSALAS ARBURUA** etxalartarrak 2 urte bete ditu martxoaren 31n. Zorionak eta muxu pila pila familia osoaren eta bereziki zure anaia Kemenen partetik.



**ANDONI EUGI MENDIZABAL**. Zorionak eta milaka muxo apirilaren 1ean 5 urte bete dituen kaxkarroari! Ea aizkora oparitzen dizuten... Igantzi eta Lesakako familiaren partetik.



**ANDONI EUGI MENDIZABAL**. Apirilaren 1ean 5 urte bete dituen ondozale preioxoari zorionak eta muxo haundi bat Odei eta Juanjoren partetik.



Berako **GARAZI ARBURUA ZELAIETAK** 2 urte bete ditu apirilaren 2an. Auniz urtez pertxenta! Attatto, amatto eta familia guztia-  
ren partetik.



Urdazubiko **PABLO OLAIZOLARI** auniz urtez! Eta muxu pila apirilaren 18ko partez. Zure bihurri Pabloren partetik.



Leitzako **NAROA OLANO** gure etxeko sorgintxoak apirilaren 1ean 2 urte bete ditu. Zorionak etxeko-  
en partetik eta txokomarrubizko muxuxoak zuretzat.



**XUBAN TABERNA MUTUBERRIA** aranz-  
tarrak apirilaren 10ean 4 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztia-  
ren partetik.



**ANDER PAGOLA LOPEZ** beratarrak apirilaren 16an urtea beteko du. Zorionak gizontxo familia guztia-  
ren partetik eta berexiki zure anaia Jonen partetik. Muxu haundi bat.



**KATIXA MADARIAGA APEZTEIXA** lesakarrak apirilaren 10ean 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat.



**JOSU OTXANDORENA**. Auniz urtez eta bost muxu handi Naroa, Garazi, Uxue, Iker eta Ekaizen partetik.




Leitzako **IRATI TELLETXEA EZKURRAK** urtea beteko du apirilaren 18an. Aitaxo eta amatxoren partetik, zorionak bitxito!!!



Legasako **HEGOIK** 2 urte beteko ditu maiatzaren 9an. Zorionak familia guztia-  
ren partetik. Muxu haundi bat eta ea noiz hasten zaren solasean terremonto!



Elko, Nevadako **KYLE OWLSEY IGOAK** 8 urte beteko ditu apirilaren 20an. Zorionak Lesakako familiaren partetik. Muxu haundi bat.



Zubietako **NAROA SANTESTEBAN OTXANDORENAN** 8 urte beteko ditu apirilaren 15ean. Auniz urtez! Familia eta bereziki Garazi, Uxue, Iker eta Ekaiz.



**HAIZEA AIOROA APEZTEGIA** itur-  
rendarrak 8 urte bete ditu apirilaren 6an. Zorionak familiaren eta berexiki atta, ama, Hodei eta Haitzen partetik



Sunbillako **EGOIK** apirilaren 19an 4 urte beteko ditu. Muxu haundi bat zure lagunen partetik. Berendu goxoa prestatu!!! Amatxorentzat ere bai!



**ANA TELLETXEA** eta **UNAI BALLARENA** elizondarrek apirilaren 18an eta 19an urteak beteko dituzte. Ongi pasa eguna familiaren partetik. Unai, pastel auniz jan!

## abantailaz betetako txartela

TTIPI TXARTELA erosten duenak (40 euro)  
baditu deskontuak denda eta zerbitzuetan,  
hamabostero zozketetan parte hartzeko aukera,  
%20ko desgrabazioa Errenta Aitorpenaren kuota  
eta aldizkaria debalde.

Informazio gehiago:  
Anduetzeta 12, 31760 ETXALAR | Tel. 948 635 458 | Fax 948 635 457 | info@ttipi.net | www.ttipi.net

# KRISI-KONTRAKOGAUA

APIRILAK  
**17**  
LARUNBATA

LURUJOTAK:  
**DJ NASH**

01:00 - 02:00 : Dohainik eta 2x1  
02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

# KRISI-KONTRAKOGAUA

APIRILAK  
**24**  
LARUNBATA

LURUJOTAK:  
**DJ NASH**

01:00 - 02:00 : Dohainik eta 2x1  
02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

# BARRICADA

MAIATZAK  
**1**  
LARUNBATA  
LURUJOTAK:  
**DJ NASH**

23:00 - 20€ Aurretik 23€ Bertan  
Salmenta puntuak: Elizondo: Anbitonea, Txokoto | Lesaka: Abaspi | Iruña: El Infierno

# KRISI-KONTRAKOGAUA

MAIATZAK  
**8**  
LARUNBATA

LURUJOTAK:  
**DJ NASH**

01:00 - 02:00 : Dohainik eta 2x1  
02:00etatik aintzinerara 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

# SOZIEDAD

MAIATZAK  
**22**  
LARUNBATA

# ALKOHOLIKA

LURUJOTAK:  
**DJ NASH**  
**DJ AK**

# +THEEYES

23:30 - 12€ Aurretik 15€ Bertan  
Salmenta puntuak: Elizondo: Anbitonea, Txokoto | Lesaka: Abaspi | Iruña: El Infierno

# ETALAISTER... JOSEINA, SEIREN...



**Lur**

WWW.LURELIZONDO.COM



Oso gutxi kostatzen da zure  
Renault-aren segurtasuna mantentzea

**-%50** BIGARREN  
NEUMATIKOAN  
MUNTAKETA ETA OREKA BARNE



[www.renaultservicios.es](http://www.renaultservicios.es)



**RENAULT  
SERVICIOS**

RENAULT BAKARRIK  
ZURE RENAULT-AREN MAILAN DAGO

RENAULT recomienda **elf**



\*Baleko eskaintza obalaren 15etik aurreratik 15era, Dunlop, Continental, Goodyear, Michelin, Pirelli eta Bridgestone neumatikoentzat.



**PEDRO GARMENDIA** CTRA. FRANCIA, KM 5,7. 31700 ELIZONDO. TEL. 948 580 431

**TALLERES SANTESTEBAN** CTRA. DE LEIZA, 80. 31740 SANTESTEBAN. TEL. 948 450 282

**BERAUTO AUTOMOTOR** CTRA. NACIONAL 121 A, KM 73. 31780 BERA DE BIDASOA. TEL. 948 630 621